

Piarres Lafitte

MURTUTS ETA BERTZE

Fitxategi hau "liburu-e" bildumako alea da,
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Piarres Adame. Murtuts eta Bertze...*, J.B.
Elissamburu, Piarres Lafitte. Elkar, 1982

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00332.htm>

MURTUTS ETA BERTZE

Itsasu es omen da beti danik izan oraiko herri-erne bezain baliosa. Ezpeletar batek salatu daut hori beharrixilorat, eta orok badakigu auzoek ontsa badakitela elgarren berri, alde ala... bertzalde!

Bertzenaz ere herriak, jendeak bezala dira; behin sortzen dira, herbail eta ttipi; gero handitzen, ttarrotzen, zerbait eta norbait bilakatu arte.

Haatik biziki aspaldikoa du Itsasuk eskualde pollit eta fruitutsu baten fama. Itsasuko gereziak, hasteko, nun ez dira mundu huntan ezagutuak, aipatuak, goretsiak, eta (ahal delarik) iretsiak, zonbaitek artetan karioxko atxemanik ere? Bai fama horrek erro azkarrak ditu, urrun eta barna eginak. Ez baitugu ezagutzen fama zuzenagorik, liburu xaharretan xerkatu gira, zoin zitazkeen gereziketa eta fruitu-aberastasun horren iturburuak.

Huna laburzki zer irakurri dugun. Erran gabe doa ez dugula on egiten azken ponduetarainoko xehetasun guziez.

Beraz, erdaraz *Nive* eta eskuaraz *Errobia* erraiten diogun ur-handia, zaharrek deitzen zuten «itsasoa». Uste dut Milafrangan ere izen hori emaiten ziotela. Aise asma ditake zergatik. Zeren-eta itsasoa marearekin ibaiari goiti herri-raino igaiten baitzen. Ur-hegitar gehienak arraintzatik bizi ziren, itsas-arraina esku-menerat heldu zitzaietenaz geroz. Bertzalde, zer nahi mariñel bazen bazterretan garraioanari zirenak. Herriko portutik (*Errobisala*-ri hurbil omen baitzen) eta Baionako barraraino xalant azkar batzu joan-jin bazabiltzan egun guziez, zer nahi puska bazeramatela; haratekoan: harri, egur edo zur, ile, azienda, ilar, ikatz, burdingei; hunatekoan: oiha, baxera, tresna, xokolet, tindu, itze, olio, arno, eta holako! Legez ala kontrabandan ari zirenetz, ez da errana; bainan, itxura guzien arabera, portu hori! Baxe-Nabarreko portua bezala zen, hots! Baiona ttipi bat, junta-leku eder bat. Ez da harritzeko Itsaso edo *Itsasu* deitu baitzuten herri balios hori.

Bainan mundu huntan betiereko zorionik ez da. Egun batez destorbu izigarria gertatu zen; bai, izigarria: lurikara batek bazterrak oro iharrosi baitzituen, han-hemenka ibai-zola ere kraskatu zen, leize eta tulunbio batzu eginez, ur-joaira desberdinduz; eta holaxet, egunetik biharrerat, ur-jauztiri edo barradera batzuek hautsi zioten untzieri Baionarako bidea. Makur handia, makur beltza Itsasuarrentzat. Bat-batean mariñelgoa galdua zuten, eta arraintza bera erdikalatua, itsas-arraina ez zenaz geroz ja-goitirik Milafrangaraino baizik igaiten ahalko.

Zonbait egunez baldituak egon ziren, ezin sinetsiz hortaratuak zirela! Bainan, ez baita beharra bezalakorik, herriko gizonak elgarretaratu ziren igande goiz batez, eta ekar-arazi zuten mendian bizi zen ermita saindu bat. Deliberatu nahi zuten nola iharduk ezinbertzeari. Ermitak erran zioten: «Jaunak, barda-arratsean amets bat egin dut: hamabi dotzena arbola agertu zaizkit larrain eder batean lerro-lerro landatuak; ipuruan horra hor xutik, apezpiku bezalako jende bat, kurutzea eskuan; beha nagokio, zer ari den hor apezpiku distirant hori bere eliza arropetan;

besoa hedaturik airea hiru aldiz benedikatzen du kurutzearekin; lehen aldian arbola guziak hostailatzen zaizkit; bigarrenean loratzen; hirugarrenean fruitu ederrez mukurru betetzen; bet-betan haizea heldu da mendizokotik, fruituak adarretarik aurdikitzen dituela; arbola-azpietarat behatzen dut; lurrean ez sagar bat, ez gerezi bat, ez udare bat; bainan zer ikusten dut? Urre eta zilar, ibai bat diru pirrikitan eta harramantzan! Arbolen erdian bazen eliza bat: Itsasuko eliza! Horra nere ametsa. Amets horrek erran nahi du fruituez kanpo ez dela guretzat salbamendurik. Arbola fruitudunek herria aberastuko dute, araberako patroin saildu bat hautatzen eta ohortzen badugu!».

Herriko gizonek jaun erretorarekin batean bilatu omen zuten kalandier eta liburuetan «araberako patroin saildu» hura. Tarragoneko eskualdean izan baitzen noizbait *San Frututsu* delako bat, hura hartu zuten begiraletzat; eta berehala hasi ziren gerezi-ondo, gazten-ondo, eta bertze zer nahi ondo landatzen. Itsasu salbu zen. Geroztik ez zaiote egundaino urrikitu. Bakarrik luzara, erabiliaren erabiliaz, *San Frututsu-*

ren izena guti edo aski andeatu eta markestu dute. Frututsu *Furtuts* bilakatu da, eta azken hau *Murtuts*. Horra bada zertako egungo egunean ere Jondoni Murtuts erraiten dioten komunzki Itsasuko patroin sainduari. Mundu hau mundu deno diraukola!

* * *

Mendeak joan, mendeak jin, Jondoni Murtutsen alderako deboziona ez omen zen batere ttipitu Itsasuarren artean. Izaitekotz, emendatu!

Bertzeak bertze, elizan bazuten eraikia harrizko saindu bat, aspaldiko bultu bat, ez dakit nundik ekarria. Itxuratzen zuen, holetan, abade edo apezpiku toldo buru alimale bat, bi zango handi hetrepeleen gainean. Xutik, kapa gorrast'eta urdin bat soinean, kurutze arrunt bat esku-pata batez atxikitzen zuela... Ez zen eder-ederra, nahi baduzu; bainan halere munstra poxi bat bazukeen, argien eta lilien artean distiratzen zuelarik.

Harrizko saindu horren karietarat zonbat ixtorio ez da kondatzen? Zonbaitño doatzila liburu

huntan, Ezpeletan bildu ditugun bezala; ez bate-
re Itsasuarren, eta are gutiago Jondoni Murtu-
tsen trufatzeko (Jainko maiteak begira gitzala
bietarik!); bainan bitzi baino bitziagoak baitzaiz-
kigu... ixtorio kakola horiek oro!

Beraz, bertze orduz, ba omen zen Itsasun
erretor xahar bat: Musde Zanpagaray. Apez ona
segurki bere maneran: otoitz egilea, predikari
bipila, beharduneri emailea; bainan den lekutik
baizik ez baititake eman, gauza biltzale gaitza
egin zen: har eta har, eriak aztar bilakatu zitzaiz-
kon, diotenaz, eta sudurra ere kakotu. Guk ez
baitugu ikusi, ez dugu hala zelakorik finkatuko.
Bertzen erranetik ari gira.

Dena den, igande batez ez zituen guti harritu
bere Itsasuar gaixoak, prediku hau atera ziotela-
rik.

—Girixtino maiteak, herenegun eliza huntan
gertatu den mirakulua nahiago nuke nehuri ez
salatu; bainan Ebanjelioak diona, gaizki lizateke
argiaren gaitzurupean gordetzea. Hortxet nin-
tzan bada, hirugarren kadira hortan, otoitzean
ari ene populuarentzat, noiz eta ere norbait
beharririk lotu baitzaitan. Ai! Itzultzen niz. Nor

uste duzue nuela hor?... Murtuts, bai Murtuts ber-bera, bere kokots handiarekin. Amets tzar bat nuenetz nindagon lehenik; banan, futxo! girixtino maiteak, holako ametsik ez da: beharria gero-ta-gehiago luzatzen ari zautan gure patroin sailduak, —ez bainuen beharragorik! Hortan oihuka hasten nitzαιο: «Ai, ei, barkatu, Jauna, barkatu!». Eta harek niri: «Ene haurra, ez duk hobetik eta ez ditek hobetik nire Itsasuiar on eta kartsuek ere! Jende gisakoak dituk oro, eta aski zaiotek jakitea zer eginbide duten, hari berehala jartzeko.

»Ez nuk bada hola, urteak eta urteak jan gabe egoiten ahal! Beihalako girixtinoek, ortzira-le guzietz, zerbait emaitza ekartzen zautateian. Errotek otoi arbasoen urratseri jarraikitzeke lehen-bai-lehen!». — «Bai, saildu handia!» Eta hup! berriz jauzian bere tokirat joan da, bertze fitsik erran gabe. Orai, nik bezain ontsa badakizue, denek, zer diren gure sailduaren errangurak. Egizue bada behar dena, amoreagatik eta dohatsu izan gaitezen, zuek eta ni, mundu triste huntan behin, eta gero bertzean Murtutsekin. Halabiz!».

Apez xaharra prediku-alkitik jautsi zen gorri-gorria, Moises menditik bezala. Jendek uste zuten kar saindu batek emaiten ziola begitarte hori; bainan nork daki ez zionetz ahalgeak emaiten? Lehenbiziko bekatuek, nahi eta ez, nahastente dute bekatorea.

Zer-nahi den, igande hortarik landa, Murtutsen bultuaren oinetan mahain bat ezarri baitzuten, herriko etxeko-andere guziek zerbaixka ekartzen zuten aste guzietz present, nork ogi, nork arto, nork oilasko, denetarik, hots.

Norbaitek egiten ahal zuen irri, Murtutsen izenean eta Itsasuarren gostuz! Itsusia.

* * *

Sartu ere bai ziren egun batez irri horiek oro. Ez dakit Zanpagarai jaunak larderia sobera egin zion, ala mahainean ez aski maina, ala egia-
ren amodioak mintzarazi zuenetz, dena den kaputxin Nafartar maingu bat ororen salatzerat ausartatu zen, aldare-aitzinetik Salvatore egun batez:

—«Kristauak, esan biar dizutet egi aundi bat: ekarri dezute ta ekartzen ere dezute beti zer nai emaitza, mai orren gañera. Baño sinismen okerra dezute; San Furtuts zeuen geriza-zalle santua ez dago gosetuta zeruan, Jaun Goikoa ongi guztiez inguratuta berekin duenazkero. Apaiz ori dago, lotsagabea, ebasgotik asetutzen!».

Apez xaharrak, bere zazpi botereak bildurik, han berean eskumikatu omen zuen kaputxin gezurti alaena! Eskua dardarikatuz, kurutzearen seinalea petik goiti eta eskuinetik ezkerrerat eginenez madarikatu zuen, Itsasuarrak ziren baino astoagotzat egiten zituenetz, eta hein hortako eskandala baten emaiterat jina zenetz Itsasuko eliza ederrerat! «Zoazi, zoazi, kaputxin arnegatu, gezurti alaena!». Hitz dorpe horiek Zanpaga-raiek erran baitzituen, beude haren gain! Bainan aitortu behar degu Itsasuar guziak errabiaz piztu zituela.

Horra berehala jaun mera bere xarparekin, eta horra kontseiluko gizonak! Galerietarik jaus-ten dira patxada ederrenean eta bonet-ukaldika kentzen dute predikari maingua elizatik, sorgin

gaitxo bati bezala «puies, puies!» erraiten diotelarik.

Atea iragaitean, Mari-Antoni gelariak kadira aurdiki zion airez-aire, beharrik huts egin baitzuen.

Joan zen, joan kaputxin gaixoa: bainan, diotenez, Itsasuko zedarrietan gelditu zen ixtant bat: bere abarkazolak atera zituen eta elgarri jo, herri basa hortako errautsik ere ez eremaiteko!

Kontseiluko gizonak beren balentriaz bazuten aski espantu.

Haatik gogorki harritu ziren, bonetak buruan ezarri nahi izan zituztenean: ezen boneta eman orduko, burtzora izigarri batek hartu zituen oro, eta hortarik beretik ezagutu zuten kaputxinak ez zukeela kaskoa zangoak bezain maingu, eta Jainko maitea ere haren alde zela.

Geroztik buru-has ibili behartu zitzaioten, eta etxeko-andereak gelditu ziren edozeren ekartzetik Jondoni Murtutsen oinetarat: kaputxinaren mendekioa!

* * *

Zanpagarai gaixoa bihotza ilunik zagon elizako mahain hutsari beha...

Ez, ez, zitakeen hola egon! Lehen-bai-lehen gauzak haxean eman behar zituen, ala herria utzi: herri goxo horren uzteak ere holako bat egingen-eta, deliberatu zuen prekidu berri bat aterako zuela, sekulan ez bezalako frogak eta denak emanek, bere buruaren xuritzeko.

Huna delako predikua:

—«Girixtino maiteak, berrikitan nik bezala aditu duzue kaputxin kixkil sorgin bat zer nahi erranka: baizik-eta guziera, eta ez zuela heien beharrik ere. Zuek sinetsi! A! eskerrik ez? Beharrik ez? Beha orai, beha! Nun dugu orai gure saindu handia?... Joana!».

Eri puntaz erakusten zioten Murtutsen jarlekua... hutsa! Jendearen harritzea!

—«Bai, joana! Adio beraz gure gereziak, adio gure fruitu-mota guziak, nun ez dugun berriz hunat biltzen eta gain-gainetik artatzen!... Zurizuriak eginak zirezte, girixtonoak; eta bada zeren! Blzkitartean, Itsasuar maiteak, ene gustuko ez duzue oraino etsitzekorik. Eta huna zerk emaiten dautan esperantza poxi bat. Barda atea

hestean, elizan zen oraino gozo-gozoa. Goizean eman bide da ihesari, atea idekiz geroztik. Ahu-larekin ez dut uste lekoarik egin duen. Beraz mezik lekora, goazen oro haren ondotik! Aise atxemanen dugu eta herriko ohorea salbu izanen da!».

Bihotzak erdiratu ziren prediku hori aditzean; nehun ez da holako nigarririk egin egundaino! Pentsa! Azken Ebanjeliora gabe eliza-zola dena ixtila zen, eta zonbaitek, espartin xuriak zikin beldurrez, untutsik atera behar izan omen zuten elizatik. Zoin minbera den haatik jendea, herriko ohorea aipatzen dioten ber!

Anjelus kantatu orduko, Itsasuarrak oro, erretor xaharra buru, bide guzietan barreatzen dira kartsu kartsuak.

Etxe baten aintzinean iragaiten direa bada, oihuz hasten dira:

—Errazu, hu! Mariaño? Ikusi ote duzu norbait hemendik pasatzen?

—Nor?

—Ez dakizu Murtuts goseturik ihesi dugula?

—Emazu hortik?

—Hala baita ordean! Denak haren ondotik gabiltza.

—Ni ere heldu niz bada.

Emeki-emeki horra herri guzia airean.

Giltzaina edo sankristaua, eliza-dorretik beha eta beha alde guzietarat, begiek ikus ahala urrun.

Herriko mutila, atabala gerritik, berri izigarraren oihu egiten ari etxez-etxe.

Pettiri arraintzale xaharra ur-handian haga luze batekin iker-mikerka, sailduak etsiturik bere burua ito bazuen ere...

Apeza berriz oihuka:

—Norat zoazte? Zer uste duzue, ala itsurat abiatu den? Ez, ez, zagozte deskantsu! Ni sinets! Jateko zerbait den tokian atxemanen dugu, atxemaitekotz.

Bilatzen dute oraino, ezker eta eskuin.

Bilatzen dute borda batzuetan, oihan-azpie-tan, sasi handien gibelean.

Nehun ez fitsik ageri.

Azkenean huna berriz ere jaun erretoraren boza:

—Ori, ori! Zer da hantxeko mamu beltza ogi alor horren erdian?

Badoatzi ikusterat... Murtuts! Bai Murtutsen bultua bera zuten begien aitzinean! Hor zagon zut-zuta, bizpahiru ogi-bihi ezpainen artean, zoitz eta mutu!

Mintzatu balitz, ederrik ikasiko zuten Itsasuarrek: nola jaun erretorak goizean goiz horrat ekarri zuen, gordeka eta errestaka; eta nola ohi bihiak bikez lotarazi zituen ezpainen artean!

Beharrik ixilik zagon, apeza ez bezala. hau belauniko hasten zaio gora-gora:

—Saindu ona, horra zertaratu zituen bada gure esker gaitzak! Ihesi joan behartu zaitzu, goseak ez hiltzeko!

Ohoin bat bezala bertzen alorrean sartu zira ogi-bihi gordin batzuen jateko, bertzerik ez izanez! Otoi, barka, Mututs, gaixoa!

Itsasuarrak nigar-hipaka ari ziren, bularra joz, denek betan oihu eginez:

—Otoi, barka, Murtuts gaixoa.

Eta apezak aitzina:

Saindu ona, hitzemaiten dautzugu ez zitugu-la gehiago goserik utziko: beti aseko zitugu gure onkeriez...

Populuak berriz:

—Bai, beti, beti, saindu handia.

Apezak segidan:

—Zuk ordainez, Murtuts maite-maitea, fruituz aberastuko gitutzu: sagarrez, udarez, mertxikaz, gaztenez, mahatsez, gereziz, mizpiraz, intzaurrez...

Ez dakit zer aterako zuen oraino Zanpagarai gaizoak baldin-eta boz samin eta azkar batek ez balu bet-betan ixil-arazi, eta nola.

—Aberastuko? Debruien urdeak! Aberastuko? Aise ari zirezte, zuek! Anartean horra nola funditu dautaten ogi guzia, orotan zangopilaturik! Are, fuera hemendik, basurdeak ez bertzeak! Eta zuk, jaun mera, zure xarpa madarikatu horrekin, ez badautatzu emaiten —herriko dirutik ala bertze nunbaitik—, hemengo desmasien ordaina, jakizu, nik erranik, hauziño bat eginen dauzutala, ez baitu Itsasuko herria hanbat aberastuko... Zirtzil hastio zikinak! Tripa ustel beltzak!...

Bai, ikusteko zen, egiazki, Borda-ttipiko nau-
sia, atorra-mahunga-has, buru-has, sarde luze
bat eskuan, begiak sutan hasarre gorria, haguna
zariola...

Itxura guzien arabera, norbaiten hiltzera
zagon.

Pentsa ea bazterrak ez zirenetz laster ixildu,
eta lekuak usu-usua hustu?

Lau gizonek hartu zuten Murtutsen harrizko
iduria. Keetarat orduko, apezak *Magnificat* hasi
zuen errepikan, eta proesione ederra egin zen
elizaraino. Ez dakigu Borda-ttipiko Pattinek here
gisako litania batzu eman ote ziozkan bertze
otoitzen artetik.

Dena dela, hameka ehun libera ukan zituen,
ondoko egunetan, herriak emanik, eta Murtutsek
ere aste guzietako bere present-andana.

Zanparagai gaizoaren irriñoa.

* * *

Iduri luke gezurtiak nehor baino sinetsgaitza-
go behar lukeela! Bizkitartean (Jainkoaren
nahia!) gezurtia bezalako gezur-iresle guti da.

Noiz nola mintzatzearen bortxaz, batean oneson, bertzean alegia, gogo nahasten zaio, eta azkenean hala dena eta hala ez dena ez ditu beretzat ere nehundik berexten ahal. Holako zer-bait gertatu bide zitzaion Zanpagarai gaizoari.

Goiz batez, meza ondoan, betterrari erranzion:

—Manex, habil berehala mari-Antonirenganat. Errok hemen berean askaldu gogo dutala, eta ene xokolet-presa hunat igortzeko.

Baietz, eta horra gure muttikoa lasterka, jauzika, jaun erretoraren etxerat.

—Hela!

—Aintzina!

—Jaun erretoraren partez elizan askalduko dela eta askaria harat igortzeko!

Gelaria lur-sagar xuritzen ari zen zarra-zarra. Ganibeta mahain-hegian pausa, eskuak dabantalean xuka, horra nun den orai, supazter xokotan. Dupin mehar mainguño bat ateratzen du hautsen artetik, eta gatilu xuhail batetarat husten, Enearekin usain gozo bat dariola. Berehala burdinezko estalgi arin bat emaiten dio gatiluari, eta estalgiaren gainean hiru xerra ogi xigortu.

—To, Manex, har-zak hau holaxe, pollikiño!
Atxik xuxen, eta begirauk bidean ixur...

Manex jalgi zen zut-zuta, ezker eskuin deuse-ri behatu gabe, Sakramendu Saindua ekarri balu bezala. Mari-Antoni bi begiak landatuak beha zagokon zorrozki leihotik.

Huna orai muttikoa sankristian.

Gatilua mahain ttipi baten ganean pausatu-eta, badoa ikusterat nun zer ari den jaun erreto-
ra. Otoitz-alkian da, belaunikatua, xanoa kasko-
an, sudurra alimaleko liburu bati burua bi eskuen
artean. Lo denetz ala oremus-etan ari, Jainkoak
berak daki.

Debruak aldiz bazakien bazela Itsasun better
aho-xuri bat. Izigarrizko xokolet-nahia piztu
omen zion zintzurrean barna.

Gaixo Manex! Xokol-etminez nehun ez zago-
ken!

Berriz sankristiarat orduko, behar duela
bederen usain-bafada on bat hartu, horra erri
batez estalgia erdi-altxatua!

«Hain xuxen, uste gabetarik xokolet-ttintta
bat hunkitu baitu eriak, nola orai ez milika eri-
mutur hori, ez balitz ere haren garbitzeko baizik?

—Jesus! hain itsusia izanagatik, hau duk gauza ona! Berriz ere doi-doiako bat jastatzen banu? Ez duk berdin jaun erretora ohartuko!...

Sabeleko debruak itsuturik, gure muttikoa hasten da beraz eria untzian sar, ahorat ekar; justa eta musta, eta berriz busti, eta berriz milika, halako moldez non oxkoleta azkenean erdizkalatu baitzuen.

Ohartu deneko, harritua, izitua gelditzen da, ea zer erranen dion bada jaun erretorak:

—Ez duk dudarik, Manex, ehoko hu! Iduri zaio hitz horiek entzuten dituela bihotz xoko batean, bertze munduko boz idor batek erranik.

—Ai, ei, ama! Gezur eder bat nola pentsa? Behar nitek bada ateka huntarik erdi-bizirik bederen ateratu.

Bet-betan, inguru guzietarat behatu-eta, hor berean ikusten du kadira baten gainean Murtutsen bultua. Garbitzeko jautsia zuketen bere ohiko egontokitik. Haurrak berehala xokoletondarrean eria sar, eta izil-izila saindu gaizoari hartaz ezpainak pereka.

Orain huna haur debrua jaun erretorari oihuz eta helka:

—Jaun erretora, fite, fite! dena jaten ari dau-tzu Murtutsek!

Apeza xutitzen da, heldu da haia-haia begi logale batzuekin, sainduari behatzen dio goihen-barren, hasarrereak gorritzen diola arpegi guzia.

—Hi, hoa hemendik!

Betterra lasterka emaiten da ihesari, manatu zaion bezela, eta kontent!

Orduan apez zaharrak, burua guti edo aski nahasirik, argi-hiltzeko makil luze hura hartzen du bi eskuz, eta kask, gain-behera Murtutsi:

—To, atxikak hori, mutur beltza!

Pin, pan! Krik, krak! patapun! hogoi-ta-bortz zati egin omen zen harrizko bultu hobengabea.

Harrizkoa zela baitiote, nik ez dakit. Goazen beti!

Ixtant baten orduko, Musde Zanpagarai ontsa urrikitu zen bere lanaz, eta ondoko igandean Itsasuarrek prediku hau behar izan zuten entzun:

—«Girixtino maiteak, zorigaitz, zorigaitz eta zorigatiz! Engoitik badakizue zer gertatu zaion gure Murtuts sainduari! Gaizki aditu luketenentzat, huna bi hitzez: aro itsusi hauiek errefriaturik seguraz ere, arras begi trixtea kausitu nion

ortzegun goizean; bainan nik ez nakien harrizko sailduak hain hotzbera izaiten ahal zirela eta hain feirosak. Jakiterat, soinean emanen nion gure xaparik ederrena: hura bizkarrean ederki berotuko zen; ni segurik izerdi-lapetan emaiten nu xapa horrek, besta-buru bezperetan! Zer nahi den —adina ere hor baitzen bada—, gaitza edo sukarra nausiturik, zanpez aldi-txartu da gaixoa, izigarriko erorikoa egin du, eta puskaturik errausturik atxeman dut, plantarik nigargarriean! Ai, ei, gurea, girixtinoak! Bai, dolu handia da, eta uharka nigarrez artzeko egunak ditugu, zuek eta nik. Bizkitartean ez izi! Jainkoa lekuko ez duzue den gutieneko hobenik eroriko hortan! Beraz altxa dezagun denek burua, altxa bihotzak, eta har elgarrekin xede handi bat, xede saildu bat, xede miresgarri bat, Itsasuar fededun kartsueri doakoten xede bat: hots, Murtuts gure patroin onari harrizko iduri eder berri baten eraikitzeke xedea. Lehengoa baino ederragoa erosiko dugu. Pesta super bat egingen dugu, oroi-tagarri horren agertzeke egunean: auzo-herri eta herrixka guziak harrizko dira, non ez duten bekaizgoz eta jelsiaz leher egiten! Eta Jainko

Jaunaren aingeruek lagunduko gaituzte beren kantu xaramelez, ez bakarrik nigarrezko desterru deitoragarri huntan, bainan bai zeruan ere Murtutsekin. Hala biz!».

Ez dugu erraitearen beharrik Zanpagaraiek arrunt beretuak zauzkala bere Itsasuar guziak: bihotzak bezala begiak ere, nahi bezala, bazeramatzan, prediku hastean xotin eta nigar; gero aldiz, zer behako argituak, herriaren omenaz mintzatu zenean, eta bereziki auzoen bekaizgoaz. Bai, orduan, halako urgulu-firfira bat hedatu zen eliza xoko-xokoetaraino, ile edo mantalinak oro perekatzen zituelarik, ekain-ondarrean haitzeño batek ogi-buruak perekatzen dituen bezala, gure alor aberatsetan barna...

Mezatic lekora auzapeza bere xarparekin eta kontseiluko gizonak bildu ziren elgarretara. Deliberatu zuten behar zela herriko dirutik bultu berri bat Pau-en erosi, eliza eta eliza-bazterrak gain-gainetik garbitu eta antolatu, jaun erretor zaharrak aipatu besta ederrari buruz.

* * *

Ororekilakoa egin duenik ez baita sortu, oixtion erran duguna, baizik-eta Zanpagarai-ek denak beretu zituela, ez da arras-arras egia. Itsasun bazen gizon bat, sortzez Xuberotarra, eta Kixkil erraiten ziotena. Bazuen usu jaun erretoraren kontra hitz bitxi edo bizi bat. Koblan baitzakien guti edo aski, bertsu zonbait ere baziozkan eginak. Ez ditut denak gogoan; ez behar ere; bainan hautaz oroit niz oraino:

*Musde Zanpagarai,
Ai, ei, ai, ai, ei, ai,
Lehen eta orai
Egiaren etsai...
musde Zanpagarai,
zu beti zanpa-gai!*

Elizan ibiltzalea zen horien guzien gatik. «Solamente, berak zion bezala, alabadereko prediku hoi entzutez pastetx bat bezala lotzen nuzu». Erran nahi baita, erretoraren predikuak ez zituela gostukoak, eta talo bat bezala lokartzen zela lekuaren gainean...

Halako igande batez, Jaun erretora *tar-tar-tar* predikatzen ari, eta hantxet, galerietan, prediku-alkiari biseanbis, gure Kixkil... lo, zurrungan.

Zanpagarai ohartu, eta gogoan hartu zuen ez zuela hola utziko; nolazpait iratzarri behar zuela, on bazaion eta ez bazaion.

Boza gero-ta-gehiago altxatuz ari zen:

—«Girixtinoak, Jainkoak zer ez du egiten gure arimen salbatzeko? Eliza ama sainduaren hitza beharrietarat turrutatzen daukute, eta gu lo! Bihotzetan konzientzia kitzi-kitzi, zur-minean harra bezala, eta gu lo! Zeruetan ihurtzuri karraskak ari ehun mila ximisten artean, eta gu lo! Itsasoan ditazken galerna edo ekaitz izigarrienak zitzuz altxatzen, eta gu lo! Ez girea bada noizbait atzarriko?».

Hortan ukumilako handi bat emaiten du prediku alkiaren gainean.

Kixkilo lo zagon aintzina...

Zanpagaraiek hozka batez goititzen du berriz ere bere mintzoa, ustez-eta xuberotarra inarrosiko duen. —«Bai, lo gaude, dohakabeak; alta nork daki gure zangoen azpian nolako leize izigarriak ala diren, oro sufre eta su; doi-doia ikaratzen

balitz gure lur gaixoa, bet-betan kraska laiteke lur-axal guzia eta buruz beheiti eror gintazke denak, hor idek laiteken zilobeltzean, oihuka, garrasiaka, ehun mila zango, lodi ala mehar, bilodun ala bilogabe, bai berrehun mila zango airean!...».

Ateraldi luze horren ondotik, berriz ere ukumilako alimale bat, eta hatsa har... Kixkili so, bainan Kixkil beti lo, zinez edo alegia: *rru, rru, rru...*

Erretora nehun ez dagoke. Ez du segur gogoia saldua, eta huna non, jukutria bat gaitza bururazten zaion. Sakelatik ateratzen du pilota bat eta erraiten die bere fededuneri. — «Girixtiño maitiak, bai, zonbat jende gal-bidean dabilzanak, deusen axolarik gabe! Bainan gaitza ez da hein berean sartua bihotz guzietan: eskuin barna, ezker barnago... Bihotzak ez dira ageri, eta Jainkoak daki bakarrik nolakoak diren, haren alde, ala haren etsai... Izpiritu saindua senditzendut ni baitan; harek baderabilka ene mihia, harek ene besoa. Ikusten duzue, denek, ahurrean dudan pilota? Nik bi begiak hetsirik, itsurat aurdikiko dut zuen arterat... Nor ere hunkituko baitu eliza huntan, harek kasu egin beza; jakin beza

debruaren gerrenerako bipildua dela, bai eta Satan gorriaren selaururako zohi!».

Begi-bazterrez behatzen dio Kixkili, begiak hesten, pilota eman ahala botatzen zurrungaria-ri buruz...

Jesus! Zer da hau?... Pilotak galerietako zure-ria hunkitu-eta, huna non itzultzen den xuxen-xena predikariari buruz; hunek airetik biltzen du erranez:

—Falta pilota!

Jendea harritua zagon, ez jakin zer pentsa; eta memento batez, apez eta fededun, oro ixil-ixila baitzauden, hantxet, begitarte bi eskuen artean, adi omen zitakeen Kixkil debru hori, usteldua irriz... *kur-kur-kur!*

Zer nahi izanik, jaun merak manatu zuen Murtutsen iduri eder bat; eta ihardetsi zioten baietz, maiatzeko hogoia gabe egina zatekeela.

Ernatu behar ziren beraz Itsasun, eliza eta bertze bazter guzien gain-gainetik apaintzeko. Bainan zertarik has?

Hainbertzenerakin giltzain gaixoa ezkila dorre puntarat igan baitzen arratsalde batez, handik harritua jautsi zen, ikusirik han kardo

ondoxka bat! Nola jina zen halako tokian landare txar hori? Ez zena hor, — ontsa pentsatu-ta, sorginkeria edo debrukeria zerbait?

Kontseilua bildurik, herriko gizonek ezagutu zuten, denek, Satanen lana zela; eta deliberatu, behar zirela ederki mendekatu herriari egin laido itsusi baino itsusiago hortaz.

—Lekuaren gainean asto bati jan-araz baginezoz?

Atxuantak erran orduko, denek onartu zuten mendekio handi hori.

Bainan astoa, nola hel-araz ezkila-dorre punta hartarat? Nola hupa hain gora?

Jende saldo ederra bildu zen, horren ikusteko.

Jaun meraren astoak zuen laidoaren mendekatzeko ohorea.

Abere gaixoari soka-lasterra eman zioten lepotik eta bortz gizon ari zitzaizkon tira eta tira lehen galerietako leiho batetik, indarka, hatsantuarak.

Astoa, mihia kanpoan, begiak kasik beren ziloetarik ateraiak, ahal zuen bezala ihardokiz, hor zagon muturraz zeruari, besoz paretari...

Aldetik Itsasuarrak miretsiak, elgarri erranka:

—Zer den haatik aberearen usma? Beha nola beheretik ezagutu duen kardoak; eta zer irri polli-ta duen, mihia hain lehiatuki luzatuz bere kardo-aren ondotik!!!

Kixkil hor iragan baitzen fortunaz, jauzi egin zuen astoaren salbatzerat.

—Astoa baino astoagoak zirezte; ez zirezte ohartzen astoa itotzen ari duziela?

Ganibet-ukaldi batez soka pikatu zuen, eta arta zombaiti esker, aberea ez zen hortarik hil; hiltzer ba haatik!

Jaun merak zombait egun ereman zituen animale eriaren beilatzen: sendatuxea iduritu zitzaionean, berriz ere griñatu omen zen (eta ez guti) kardo madarikatu hartaz.

Xarpa soinean bilkura ttipi bat egin zuen bere betiko lagunekin (usu elgarretara biltzea zuten!). Bilkura hortan, beraz, erabakitu zuten axuanta-ren astoak beharko zuela oraikoan kardoak erro-tik egin! Zoinek bere aldi, alabainan!

—Herriko dupak bilduz eta bata bertzearen gainean polliki emanaz, mailka-mailka, ez ote duzue uste, punta hartarainoko patar edo bede-

ren eskalerño bat molda ginezakeela? Haindik aise hel-araziko dugu gure beharri luzea...

Eherazainak sortu zuen xede eder hori. Ez dugu erraitearen beharrik denek onartu zutela.

Bizkitartean hitz-hartu zuten herrikoz-herriko behar zirela ari-izan; ez zutela auzo-herrietako laguntzarik sekulan galdeginen; asi zirela berak, berenaz egiteko...

Pentsu duzuen bezala, dupa-keta herri guzia kurritu zuten; eta zer ez zuten ekarri eliza ondo-rat; hil-herrietan ez zen kasik dupaz bertzerik ageri: iduri zukeen dupagin handi baten etxe-aintzindeia, edo bertzenaz arno saltzala batena; arno-mintu eta sufre usain hura bafadan heldu... alde guzietarik!

Dupak bildu-eta, molde onean antolatu behar. Berehala lotu ziren lanari, ez baitzen entrabaleko lana!

Noizbait nolazpait dupa guziak metatu ondo-an, uste gabeko makurra gertatu zitzaieten. Gain-gaineko leku hartarat heltzeko hiru dupa eskas.

Berriz ere etxez-etxe egin zuten itzulia dupa-eske; bainan ez zuten baño baizik kausitu ahal

izan, dena ere txarrez, txarregiz, aintzin hartan utzia...

Hau lastima! Kontseiluak ez zuen bada etsitu nahi, eta jakizue atsegin hartu zutela azkenean guarda-ondo batek hitz hau erran ziotelarik:

—Jaunak, nik ez dakit gauza handirik, bainan zor dautzuetedan errespetuarekin huna ene proposamendua: orok badakizuen musean; mus joaitearen bortxaz, azkenean gerta ditake, lehen musean aurdiki batteko edo xango baten berriz atxemaitea: hola-hola hogoi-ta-hameka ere egin ditake bai eta partida irabaz, karta bera bi aldiz baliaturik. Oixtion ene etzan-aldia egiten ari nintzelarik karkulatu dut, elizako partida hortan berdintsu dela; beherean ezarri ditugun dupek beren aldia egina dute; hiru kentzen ahal ditugu lur-arrasetik, gain-gainean ezartzeko! Horra umilki ene sendimendua...

Begi handi batzu egin zituzten ba herriko gizonek, ezin ontsa xilatuz guarda ondoaren matrikula. Bainan ez zen haratik ez hunatik: norapait higitu behar, eta haren erranetik ari izan ziren, itsutuki.

Biharamun goizean joan ziren deplauki hil-herrietara, burua gora, *nor-gira-gu* aire furfuria-tsu batekin: hasten dira guarda-ondo delakoa, mera eta axuanta, hiruak betan, behereko dupak ateratu beharrez. Sail dorpea! Hoinbertze dupa gainean, ez da harritzeko doi-doia baizik ez baitira higitzen. Halere gure gizonak ari eta ari, izerdi-lapetan desohorez ere baitezpada bururaino egin nahiz hasi duten lan hori!

Axuantaren astoa hil-hobien artean belar ondo bat edo bertze marruskatuz han-hemenka dabila...

Bet-betan, hirrimili-harramala, pin, patapun! Mendi bat dupa erortzen zaiote zerutik bezala, harrabots baldigarri batekin! Oihu, orro, kalapita!

Ixtant baten buruan ikusi zuten Itsasuarrek (alde guzietarik harat bildu baitziren, alabainan, harramantza hori entzun-eta), ikusi zuten gauza pollitik: zer nahi dupa lurrean, batzu lehertuak, bertzeak erditik eginak, hauk ustaigabetuak, horiek bira-bira amilka joaki kurutze eta harri-gizonen artean; astoa kolpatua; guarda ere eta axuanta guti edo aski kolpatuak, azken hau

zango ezkerrean, hura eskuineko besoan, eta... jaun mera harri lauza baten gainean, zuri-zuria egina, izialdurak harritua, bere zetazko xarpa beti bezala ederki emana, — beldurraz bertze makur den ttipienik gabe... nigarrez!

Destorbu handiagorik ez baitzuten izan!...

Azkenean kardoa zer egin zuten jakin-nahi bide duzue. Huna bi hitzez. Sankristauak berak ateratu zuen dorre tuturrutik, eta aipatu ditugun lau zangotako bi astoeri partitu, erraiten ziotelarik: «Bozkaria zaitezte, abere gaixoak, debrua garaitu duzue!».

* * *

Bainan debruaren aipatzeak berak erakaritzen omen du debrukeria zerbait.

Handik zortzian elizatik ateratzen zelarik, xantreak zer ikusten du hor, atetik zortzi urratsetan. Aitortuko dautzuet, ez dakitala sobera nola erran, ez bainuke irakurlea den gutiena okaztatu edo nakaiztu nahi. Bainan egiak ez du bide bat baizik; eta, bertzenaz ere, izenak ez baitu usainik, salbu-eta zuen errespetua, xantre horrek,

hor, ikusi zuen, keño bat zariola, eta urrin bat gaitza, sudurra joan nahi zuena, zakur... mokor-do bat, kuriosa.

Berehala itzuli zen jaun erretoraren ganat, otoi jin zadin mirakulu berri horren ikusterat, nehun ere ez bezalako gertakari bat gertatu zatekela, imposiblez!

Jaun erretora etorri zen, luzaz egon ere ehaka eta pentsaketa, eta azkenean jaun mera bere kontseiluarekin ekar-araztea hobe zukeela egi-nik, xantrea igorri zuen heien bila.

Delako *hura* hor zuten begien aintzinean, seguraz ere debruaren presenta, kardoaren ordaina. Bainan nola ken delako *hura* elizaren aldetik? Oroit ziren zer gosta zitzaioten kardoa-ren ateratzea, ba eta zer gostatzer! Debruarekin borrokan berriz hasteko den mendreneko gogorikez zuten gehiago. Nork jakin, hautsi-mautsi bat ez ote zuten hobeko?

Jaun erretora samurtu zitzaioten: ez zuen harek debruarekilakorik nahi, ez hautsi-mautsi, ez bertzerik deus; eta hor utzi zituen bakarrik elgarren artean, eta delako *haren* aintzinean.

Guarda-ondoak erran zioten: «Jaunak, nik ez dakit gauza handirik, bainan zor dautzuetedan errespetuarekin, huna ene proposamendua; orok badakizue jendeak hobeki biltzen direla ile alde perekatuz bertzela baino; debrua ere ba; Jainkoaren beharretan girelarik edo haren beldur, Jainkoaren gizonen baliatzen gira; debrua-aren beharretan girenaz geroz edo haren beldur, zertako ez hel egin sorgin bati, debrua-aren apez bati? Honek ere bizi behar dute, ez da hala? Horra umilki ene sendimendua».

Baietz eta baietz, guarda-ondoa bera bidali zuten Maria Pipa, Oirtzaitzeko sorgin famatuaren ganat.

Jauregibehere guarda-ondoa Oirtzaitzerat-eta, galdegin zion itzain bati...

—Errazu-eta, barkamendurekin, bazinakike nun egoiten den Maria Pipa?

—Zer? haren ondotik baitzabiltza?

—Zer bada!

—Alo, alo!... Ez da ene afera, bainan badakizu bezperetan kantatzen baitugu: «Egypto populo barbaro»? Hetaryik da...

—Jittoa? Buhamisa?

—Ba, Jauna, ba...

Guarda-ondoa buruari hazka hasi zen.

—Halere mintzatu behar dut.

—Bon! Bon! Hor nunbait kausituko duzu ba, larre hoitan... Bee! Behia, bee!...

Itzaina aitzina joan zen bere bideari, eta Jau-regibehere gaizoa, saltsa bezain apaindua, larre hoitan ibili zen, bati galda, bertzeari galda...; eta azkenean borda txar batean aurkitu zuen delako sorgintsa: emazte handi, sekail, petrail bat, bekatu mortala bezain itsusia, zaia gorrasta bat soinean, buru-has eta urtutsik.

Erran zion Itsasuarrak zer karialat heldu zen, eta Maria Pipak ihardetsi zion berehala: —Jaun gaixoa, mokordo horren kestionea ez da zuk beharbada uste duzun bezain kestione ttipia. Kestione horrek badu hainitz koropilo, hainitz gora-behera eta goiti-beheiti. Kestione horrek merezi ditu hameka pentsamendu eta hogoi-ta-bortz gogoeta. Nik erranik jakizu, Jaun gaixoa — eta ez niz bakarrik ene izenean mintzo—, jakizu beraz mokordo hori nehork ez duela hunkitu behar, ez eskuz, ez zangoz, ez bertzela, non ez duen sekulako zerbait bildu nahi, sukar kafardil,

sukar malin, sukar ustel, sukar laurden eta hola-ko...

—Sukar horiek guziak betan?

—Bai, betan, eta oraino ez dauzkizut, ene jaun gaixoa, erdiak ez eta laurdenak ere erran.

—Oisus!... Eta bizkitartean, etxekanderea, ez gitazkie Itsasun mokordo trixte horrekin hola egon? Murtutsen besta hurbiltzen ari zaiku. Zer pentsatuko dute auzo-herrietakoek, Luhuso, Kanbo, Bidarrai, Ezpeletarrek?

—Jaun gaixoa, ene kontseilua segitu nahi baduzue, huna gaitz horri komeni zaion erremedio soberanoa. Herriko artzainek ilea motz dezotela ortziralekari urte-ardi guzieri, eta ile hortaz eginen dautzuet soka handi bat. Soka estekatu-ko dugu eliza dorrean, eta Itsasuar guziek tiratuz aise bezain errexki urrunduko duzue eliza, zakurkaka debru horren ganik. Bakarrik ene pena berrehun liberako bat izanen da...

Erreposta horrekin utzilu zen guarda-ondoa, eta Itsasuarrek jarraiki nahi izan zuten tiletez-tilet Maria Piparen aholku guzieri: berrehun liberako haren emaitzak dolu egiten zien; baina hori ere onartu. Behar dena behar da.

Astezken iluntze batez urrundu beharra zuten bada, Itsasuko eliza, dakizuen zikinkeria hartarik. Buhamisak ilez moldaturikako soka alimale bat dorrean loturik, herritar guziak haren bi aldetarik eman ziren, eta indarka hasi ziren oro betan zoinek gehiago tira.

Ilekia ez da kalamukia; kalamuzko soka bere tinko hartarik ez da kantitzen; azkar eta zail, badiharduka indar guziera, non ez den hausten; ilezko soka aldiz harro hutsa da, eta tiratzen duten ber, amor emaiten du, hertsitzen eta luzatzen da...

Itsasuarrak ohartu ziren beraz gibelerat ari zirela urrats batez, beso-ukaldi arau. Pentsa algera zirentz! Denak oihuka:

—Eliza heldu da! Heldu da! Heldu da!

Anartean elizaz-bertzalderat joan zen, gordeka bezala, emazte xaharño bat, eta pala-jatsekin urrundu zuen zakur-morkodoa, berrogoi metra haratago.

Nehork ez omen zuen ikusi Kixkil debru haren baizik eta haren arabera emazteño hura Maria Pipa ber-bera zitakeen.

Nik ez dakit, ez bainintzen han. Bainan Itsasuar guziek uste izan zuten lekuz aldatu zutela beren eliza. Ez zuten aski espantu:

—Berrogoi metra! Brintxoa! Egin bezate behin bertze hainbertze Ezpeletarrek beren elizarekin.

* * *

Engoitik apailuak egintxeak zituzten. Maiaztzeko hogoia hurbildua. Pauerat Murtutsen bila igorri zituzten bortz gizon gazte. Hantxet eman zioten bultu bat gaitza handia, ederki pagatu ere baitzuten: hiru mila libera uste dut erran zutela.

Ahal bezala ekarri zuten, ahal zuten bidetik: alabainan mende hetan burdin-biderik ez zen nehun, eta gainerateko bideak ere ez omen ziren hanbatekoak.

Itsasun Murtutsen goait zauden. Arratsalde hartan mundua han zen zubiaren hunaindian, jaun erretora buru, herriko jaun mera eta kontseilukoekin.

Hainditik etorri beharrak ziren bultu-ekarleak. Hitzartuak ere ziren, urrundik keinu eginen

zutela mokanes xuriz, kantikak askigoiz hasteko gisan.

—Hara! Hara! hantxet dira!

Haur batek oihu hori egin orduko, horra jendea oro begi urrez-bertzaldera...

Hala da! Izaitez, han, urrun, zerbait xuri agertu da arbolen artean.

Jaun erretorak hitz-erdi bat xantreari, eta hau hasten da bere orrorik ederrenean:

*Zubi hunen buruan, zoin eder Itsasu,
Dena osto da lore, argi ta intsentsu:
Gure Patroin handia, zato usu-usu,
Izan gaiten guziak zu bezalakotsu!*

Eta jendek errepika a-puñatik:

*Gure Patroin handia, zato usu-usu,
Izan gaiten guziak zu bezalakotsu...*

Hainbertzenarekin triki-triki nor heldu zaiote zubitik zazpi astorekilan? Aspaldian asmatua duzue: gure ezagun xaharra, Pauloeneko Kixkil...

Iragan zen, alegia deus-ez, bere kabalekin, zeinatu ere kurutzearen parrean, eta nehork ez daki xuxen beharrez ala trufaz pasatu zenetz, ez-eta haren mokanesa zutenetz han urrun ikusi, haurrak «hara, hara» oihu egin zuenean. Berak beti ukatu du, baizik-eta besta-buru egunez kanpo ez zuela sekulan mokanesik higitzen...

Iluntzen hasia baitzen eta bultu-ekarleak ez oraino ageri, emeki-emeki, Itsasuarrak etsiturik, gaitziturik edo goseturik etxeratu ziren nor bere alde, salbu herriko buruzagiak.

* * *

Jarri izren, eta denbora pasa, ixtorio-kondan hasi ziren, Murtutsen aiduru zaudelarik.

Eta Sankristauak erran zien:

—Badakizueia Okle eta Sikle-en ixtorioa?

Bertzek ezetz.

—«Bazen bertzorduz apez bat (otoi, barka zadazu, Jaun erretora), bikario bat (alabainan adin batetaraz geroz ez da holakorik gertatzen ahal); bazen beraz bikario bat kofesatzen ari zena larunbat-arratsalde batez. Hor sartzen zaio

andereño bat, oi bainan nola apaindua, usain ona ere pollikixko bazariola. Otoitzak egin eta aitortzen dio boz apal-apal batez: «Aita, okle egin dut. —Nola erran duzu? —Okle, jauna! —Okle? —Ba, jauna! —Jesus! zer erran nahi duzu? Ez dut sekulan holakorik aditu! Zer duzu *okle* hori, sakre bat aments? —Ez, aita! —Ohointza mota berezi bat? —Ez, jauna! —Gogoeta itsusi zonbait? —Ez arras, aita! —Ez duzu, ba garbiki erran nahi? —Ez dezaket, aita! —Hanbat gaixto! Eta ez duzu bertze bekaturik? —Ez, aita! —Ederki. Huna zure penitentzia: eginen duzu *sikle*. —Nola erran duzu? —*Sikle! Sikle!* —Eta zer da hori, aita? —Ez dautzut nik erraiten ahal. —Eta zertako, jauna? —Hartako! Zuk ez badautazu garbiki erraiten zer den *okle*, nik ere ez dautzut erranen garbiki zer den *sikle*. —Aita, ahalge nuzu! —Ez da ahalgerik ez bertzerik, har-azu kuraie eta mintza zaite garbiki! —Ba, horra, aita, elizan otoitz-egiten nindagolarik joan den igandean, bezperak ondoan, sankristauak liburu handia erortzerat utzi du, halako izialdura handi batek hartu nu, eta, han —nola erranen ote dut?— arrabots ttipi-ttupi bat eskapatu zait, batere nahi

gabetarik, aski beldur bainintzen nehork ez ote zuenetz deusik aditu!... —Bon, ederki da, haurra. Orai badakit zer den *okle*. —Bainan, aita, zuk ez dautazu erran zer den *sikle!* —*Okle* guzien tapatzeko tapoin bat, haurra: errazu kontrizionezko akta!».

Gizon hoién irriak sankristauaren ixtorioari!

Eta nola Murtuts-en berririk ez baitzuten, galdengin zioten bertze apez-kondaira ttipi bat. —«Behin, erretor bat; ez ote zenetz Makean, predikatzen ari zen bar-bar Jainkoak berak daki zertaz: Girixtiño maiteak, eman ditzagun mundu zabaleko itsaso, ibai, ur-handi, latsa, uri eta iturri guziak batean, zer putzua!!!... Eman ditzagun mundu huntako arbola guziak, gaztain, gerezi, pago, lizar, haitz eta bertze, denak batean urturik: handi, lodi, abartsu, zer arbola!!!... Eman ditzagun mundu huntako aizkora guziak, burdin ala altzeiru, aihotz, belagoi ala puda, denak batean urturik: zer aizkora!!!... Eman ditzagun munduko gizon guziak, beltz, xuri ala gorri, frantses, angles ala japonés, eta hoitarik guzietarik egin dezagun gizon bakar bat: zer gizona!!! Orai,

gizon horrek aizkora horrekin botatzen du arbola hori putzu hortan: ...zer ziliporta!!!».

* * *

Karkailaz xutitu ziren gure Itsasuarrak. Urrats batzu entzun zituzten eta usmatu zuten oraikotik hek zirela, Murtutsen karreatzaileak, zubi haindik heldu...

Artetik erraiteko, ez zaitzue bitxi gure Itsasuar guziak zubiaz hunaindian baitzauden, bertalderat joan gabe, beren gizonen biderat? Huna mixterio handi horren gakoa.

Mende hortan, hainitz mendez bezala, Itsasuko zubian iragaiteko, sos bat pagatu behar zen: zubisaria. Eta zubizain bat omen zuten, izigarri zekena, ez baitzioten ardit bat ere barkatuko.

Itsasuarrak ez ziren orduan, orai diren bezain aberatsak: gereziek ez zituzten oraino ontsatuak, ez-eta kontrabandak. Kasu egiteko zuten, eta ksu eginez ere lanik aski bizitzeko!!

Horra bada nola, ez nahiz beren fortuna zubi hortan erain beharrik gabe, hain prestu zauden tokiaren gainean aiduru...

Beraz, hunen erraiteko hasia bainintzen, ez zen gehiago dudarik: hek ziren, Murtutsen ekar-leak. Gure gizonen loria! Esku zartaka hasi ziren eta oihuka, oihartzunak eta oro iratzarri baitzituzten, hamekak irian.

Ba bainan Mattin zubizainarekin hizka-mizka zerbait altxatu zen:

—Ez dautazue erreal bat baizik eman.

—Errealala ez dea bortz sos?

—Ba, bainan ez dakizueia sos bedera dela zubisaria?

—Zer zira, mattin, ala arrunt logale? Ez gira bortz gizon baizik.

—Eta Murtuts?

—Zer? Murtuts?

—Murtutsen zubisaria ere behar dutala...

—Ja, ja, ez duzu harenik izanen. Ez duzu gure pellokeriaz irri eginen... Pasatzeko, Murtutsek ez du batere zure zubiaren beharrik.

Eta hor, soka azkar batez estekatzen dute bultu handia; emeki-emeki ur-andirat jauts-arazten dute, eta gero, berak zubitik iragaiten direlarik, Murtuts urez-ur baderamate erreposkiño, zirgatuz.

Ez zen gaizki pentsatua: Mattin bi zehe sudur-
rekin ba omen zagon heieri so...

Bertzalderat-eta, kondatu zituzten bideko
gora beherak, eta nola beti begiratu zituzten
ehin-ahala herriko intresak zubisaria barne.

—Biba zuek!

Eta denak ttapalakoka ari zitzaizkoten bizka-
rrean, alegeraren alegeraz.

—Ea ikus nolako bultua ekarri daukuzuen, dio
azkenean jaun erretorak.

—Zer da hau? Soka bera heldu zaiote; ez du
iduri deus-ere baden soka horren puntan, hain
da arin eta aise erabiltzen...

—Berroia! Xahu gira!

—Zer duzu, gizona?

—Karako! arrunt ahantzia nuen Murtutsen
bultua gatzez egin zaukutela...

—Gatzez ala altzeiruz, zer da gero?

—Zer den,... brien bisaia! Ez duzu ikusten
gure Murtuts urean urtu zaikula!

Ezin sinetsiz ixtant bat egon ziren, nola zita-
ken holakorik, ez ote ziren ametsetarik ari, eta
hau, eta hura...

Gero berriz elgarri gaizkika.

—Haurrak baino haurrago zirezte! Zoroak!

—Sos baten gatik, horra zertan giren! Zikoitz hutsak!

—Bai orai pollitak gira: biharko besta orotan oihu egina; auzo-herri guzietarik zer nahi bestaliar etortzekoa, eta orotan beharrena apur bat; saildua falta; Murtutsik ez!

Jaun erretora apur bat tapatua egonik, ixilixila, bere baitaratu zen beharrik, eta bere laguneri erran zioten sano-sanoa:

—Adixkideak, ez dugu biharko besta egin gabe uzten ahal, Eskualdun guzien irri-egingarri gintazke, ez baitugu beharragorik. Ez zazuela nehorri sala gaurko ixteriorik. Nik ordain bat atxemanen diot Murtutsi, eta ikusiko duzue deus makurrik gabe iraganen dugula biharko egun eder hori...

—Biharkoa ba, jauna, bainan gero?

—Gerokoak gero, jaun mera! Aldian aldikoa aski dugu. Ebanjelio sailduak ere holako zerbait erraiten du nunbait!

Hortan elgarri «Jainkoak dizula gau on» erranik, joan ziren oro etzaterat: ordu zitakeen, goizeko bi orenetan.

Jaun erretora haatik ez zen logale. Harat-hunaka bazabilan tanpa-tanpa bere kanbaran, bere xedeak finkatu eta gogortu beharrez.

Argi-albarekin joan zen elizarat eta Anjelus joiteko jin baitzen, beti bezala, Xanxuneneko Karlos, Zanpagariak sankristiara erakarri zuen, mezu handi bat egin behar ziola.

Hola eta hola erran zion, Murtutsik ez zela, eta ordain bat behar zela, eta behar dena pagatuz ez ote zuenez onartuko, meza-bezperetan bultu baten pare xut-xuta egoitea, argi eta lilien artean; ase on bat ere sari hitz emaiten zion eguerdiko...

Karlos buruari hazka egonik bizpahiru minuta, ez jakinez zer pentsa, ausartatu zitzaion halarre erraiterat:

—Jaun erretora, ez nituzke nehorren xedeak deboilatu nahi; bainan denek ezagutzen nute bazter hautan guzietan; eta zonbat nahi lili eta argi emanik ere inguruan, aise ohartuko dira Karlos dutela hor eta ez Jondoni Murtuts. Bertzenaz ere, ni naizenarekin, oker, konkor eta kefa, zer bixta duket edergailu horien guzien erdian?

—Adixkidea, jakizu hasteko, ez zirela diozun bezain itsusia...

—Jaun erretora, ez dut nik erran itsusia nize-la...

—Bon! Jakizu beraz uste duzun baino pollita-go zirela; konkor izaitea eta horiek oro biziki estakuru ttipiak dira, aise baino aiseago antol-tzen ahal direnak.

—Ba ote?

—Ba eta huna zer eginen dugun: arrunt buluziko zira...

—Buluziko?

—Zaude! utz nezazu mintzatzerat: buluzi-eta, gorputz guzia eztiz untatuko duzu...

—Ez dut nik eztirik ez erlerik...

—Nik emanen dautzut, eta gero ezti horri lotuko diozkagu, pollikiño, ere burukitako edo buhurdiko antzara-lumatxak... Urrundik zetaz bezti iduriko duzu eta hitz dauzut nehork ez duela Karlosik ezagutuko...

—Hola denaz geroz, jaun erretora, ez dezake-zut errefusa.

Eta denborarik galdu gabe Karlos gaizoa ber-tze bat bilakatu zen: nehun egundaino ikusi ez

den Jondoni Murtuts harrigarri bat, oro ezti eta luma.

Aitortu ere behar dugu, urrundik luma horiek zetaire bat bazutela, eta ezti horrek urre-leinuru, ezti bat! Usaina bertzalde: arrunt zeruetarika-koa...

* * *

Meza nausia ederki joan zen.

Musde Zanpagaraiek prediku bat gaitza egin zuen, ez baitzuen espanturik aski, Itsasuarren fediaz eta gostuaz: ah! Zer bultu ederra erosi zuten! Holako guti bazterretan! Zer jauntzia, zer aldarte! Eta nolako begia? Ez ote zuen bizia iduri?

Mezatic ateratzean bazen ele jandetartean. Jaun mera bere xarparekin, bere kontseilukoe-kin, joan zen arno xuriaren edaterat, eta ahan-zia bezala zuen bezperako ezinbertzea.

Jaun erretorak elizako atea zerratu zituen, Karlos gaizoa pausa ahal zadien.

Aitor zuen hunek biziki akitua zela:

—Hala iduri ez duelarik, lanak dira gero, jaun erretora, hor tente-potente egoitea, mogitu gabe. Argi horiek izertarazten, eta izerdia ez behar xukatu; ezti horrek uliak bilarazten, eta ez kasatu behar; denak, bero eta hatz, erle eta xinaurri-kilika, begi, sudur-zilo edo ezpain-bezterretan, bai dena jasan behar, deusik erran gabe, zain bat ere higitzerat utzi gabe! Jakiterat ez nuen segur onartuko... Eta ez duzu asmatzen ahal zoin luze kausitu dudan zure predikua! Denboraz bertzalde, beti eni buruz itzulia zinen, jendeen behakoak oro ene ganat harmatzen zinituela! Ai, ez dakizu zer sofri-arazi dautazun meza hortan. Orai badut aski, jaun erretora; bezperetako bertze norbait har-azu...

—Otoi, Karlos adixkidea, ez zazula zozokeriarik erran. Ontsa baino hobeki egon zira meza-artean, eta nehork ez dakike zuk bezala bere burua atxikitzen edo gobernatzeko.

—Ba, zu aise ari zira! Bizpahiru aldiz arrasak egin du ez bainiz urtzinzka hasi...

—Ez araziz?

—Zer nauzu, ez niz gero ni usatua hola galzarik gabe eta atorrik gabe!

Bezperetako aldia eginen dautazu ba halere: bazkari onxko bat ekarriko dautzut berehala; hemen berean janen duzu. Sankristian; eta hitz dautzut hozdura guziak joanen zaizkizula debruetan barna!

Bai, beste egin zuen egiazki gure Murtuts berriak, eta zer besta: salda, oilaki eta tomate, aza eta xauxixa, kosteleta eta lur-sagar atzarki eta ilar-xehe; hiru arno mota, hauts-ahala; ardi-gasna, kafe eta kafe-ondoko orduan gauza arra-doa baitzen... segur Karlosek ez zukeen xilkoan hotzik.

Bezperak-aintzintxean jaun erretorak igan-arazi zuen Murtutsen tokirat, eta elizako atea berriz ere ideki zituen.

Mundua hor zen bezperetako: auzo herri guzietarik jinak ziren multzoka: sekulan ez omen baitzen halako jendeketa ikusi Itsasuko elizan...

Eta zer kantuak! Goratik eta basatik ari ziren, oro bozkarioeta xaramela.

Karlos haatik ez zen batere trenpuan: alabainan bazkariak ere munduko bertze gauzek beza-la bere bidea behar. Garbiki erraiteko, sabeletik minez zagon. Ez, nahi baduzu, min saminez, ez,

jasan zitakeen; bainan halere, behin hasiz geroz, nork jakin ez ote zen saminduko... Beldur horrek berak ez ahal zion katel gehiago eginen.

Murtuts berriak Murtuts xaharrari otoitz: «Otoi, saindu handia, begiranezazu, hemen egon nadin erdi-plantan bederen, bezperek diraute-no!».

Ba, debru bat! Tripan izigarriko guduak ari zaizkon: arnoek ezin elgar-adi, ilar-xehea lur-sagarrari aintzindu nahi, oilakia atzarkiari, gasna eta kafea azari...

—Ai, ei, ai, zer ikusi behar duk, Karlos!

Magnificat hastearekin, jaun erretora jin zitzaion aintzinerara, insentsu-untzia eskuan.

Hainbertzenarekin, ganibet-ukaldi bat bezala senditu zuen Karlosek sabelean, eta... «ile» zela, gero! Nehun ez zagoken. Ezin gehiago atxik. Ez bazuen hor berean egin nahi, norapait eskapatu behar!

Zanpagaraiek ez bide zuen holakorik uste. Handi-handia isentsatzerat bazoan: agurra egina zion Murtutsi, eta isentsuaren emaiterat ari zen, noiz eta ere... bet-betan ezin erranezko harridura batek hartu baitzuen eliza guzia...

Horra bet-betan Murtuts intzirika: «Ez, ez, gehiago ez nauke!». Jauzi egiten du bere lekutik, iragaitean, pin patapun, lore eta argi, denak lurrera botatzen dituelarik...

Eliza-erditik joan-ahala eskapatzerat egiten du, bainan huna non emazte atzuek gelditzen duten.

—Utz, nezazue, kakile niz; utz nezazue, kakile niz...

Jendea gero eta harrituago: holako mirakulurik bazitakela ere, nehork ez entzuna...

Bai bainan emaztekiek ez utzi nahi; besoetarik lotzen zaizko oihuka, otoizka:

—Jainkoaz otoi, ez gaitzazula abandona!

—Futro, emadazue bakea azkenean, leku, leku!

Pusako bat hunat, bertze bat harat, emazte oihu edo hasperen bat gora behera, ahal bezala ateratu zen, luma eta ezti hainitz galdurik bide nabar!

Jendea, belauniko, luma hoiien biltzen ari-izantzen lehiakara; diote ahorat ere erakartzen zituztela, debozinez ala nik dakita... Kondatzaile ozar batzuen arabera, gibeletik galdu luma

batzuetan, ba omen zen segurki eztiar bertze-rik... Bainan, paper zeharrek ez baitute holakorik salatzen, bego hortan... Hortarainokoen sinestea ere ez zaitzueia zerbait?

* * *

Ixtorio horrek sekulakoa eman zion apez maltzur xaharrari. Elizan nolazpait bururatu zituen bezperak. Bainan etxerat orduko, ohatu zen giza-gaizoa, sukar handi bat nausiturik.

Zonbait ilabete egon zen eri-gaizki, zer nahi pairaten zuela.

Egun batez herriko buruzagiak ekar-arazi zituen, barkamendu galdegiten ziotela Itsasun eman zituzken elepide guzien gatik; sofrikarioak oro onartzen zituen bere hutsen ordain eta Itsasuar guzien arimentzat. Bere ontasun poxia ere herriko beharrentzat uzten zien.

Azkenean benedikatu zituen, hor, ohe-inguruan, eta ixtant baten buruan, xoriño bat bezala, pollikiño... pausatu zen. (Jainkoak duela bere lorian!).

Herrian pena handia izan zuten, eta Kixkilek berak aitoren zuen bere gisako ziberotar hizkuntzan: «Arrestan pürü apez net galanta züzün eta huna, zumait bitxikeria gora-behera. Ez dit düdarik, Paradüsü erdi-erdian dela hura, Jondone Mürütsek berak harat bildürik: ezi mündü huntan nurk dü saintü hori Zanpagaraiek bezan-beste ezagüt-erazi?».

Ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren. Hortan fini da ixtorioa.

LARGO

«Largo» erraiten zioten Garaibordako Isteberri. Hirian egonik guti edo aski, bere buruaz frango hartua zen. Haren gustuko ez zen ingurumenetan gizonik, bera bezain ederrik eta zentzudunik. Kopeta gora bazabilan, haro handi batekin, bazter guziak iretsi nahi izan balitu bezala.

Denek egiten zioten irri, bainan gaizoak uste zuen denak hartaz agradatuak zirela, guziz herriko neskatxa eta andereñoak.

Egun batez Peru, zubi ondoko mahaxturi gaztea heldu zaio, iluntxean:

—Agur, adixkidea!

—Adio, Peru! Zer da berri?

—Huna! Nola erranen dut? Mezulari helduz niz... Hots, norbaitek aipatu dauzkit niri, baizik-eta zure ezagutzak egin nahi lituzkeela!

—Ha! Zer kariaz? Tratuz ala...

—Ez, ezkontzaz!

—Ezkontzaz? Badea posible? Eta nor duzu xoria?

—Huna zer den funtsa: eguberriz Jauregiko nausiak ez dira etxen izanen. Haurren ganat ba omen doatzi pestaegun horren pasatzerat. Gau hartan, Jauregiko bi neskatoek gurekin egin lezaketete gogotik krakadaño bat, zuk nahi bazinu segurik; eta jan-edan artean solasta gintezke Janeta eta Mariunekin ea zerbait antolamendu egin ditaken ala ez...

—Ba, bainan zoinek igortzen daut mezua?

—Biek.

—Zaude ixilik.

—Hala baita ordean! Biak zure gomendio daude, zuhauk hautatuko duzula zure esposgeia.

—Ah! Eta zuk?

—Bo, eni berdin zait edozoin: utziko duzuna hautatuko dut, nahi banu segurik...

—Bueno! Ez da berri txarra! Eta krakada hori nola behar dugu muntatu?

—Zuk bixkotxak ekaitzu, nik arnoak ekarriko ditut. Hamar orenetan hurbil zaite aterat... hiru ukaldi emaitzu eta segidan egitzu hiru huxtu... Idekiko dautzut eta denak biziki ontsan joanen dira!

—Ederki, adixkidea! Beraz ondoko egunak arte...

—Ez adiorik.

Eguberri jin zen, bertze egunak oro jiten diren bezala. Largo gaizoa ez zagoken bere baitan. Pentsa! Bi izar betan, haren grazien gaoait! Lore baten orde, biga!

—Ez da haratik ez hunatik; Jainko maiteak maite nu.

Eta gure gizona, pollit baino pollitago agertu nahiz mustatxak ur-azukretan bustitu zituen, xut egon ziten floka berri bat erosi, soinekoak oro usain onez bete, uliak ere ondotik joanen baitzaizkion, ez balitz negua izan.

Hots, Largo hamar orenak jo aintzin, han zen, Jauregiko atean, bixkotx zamaño bat eskutik dilindan.

Hiru ukaldi eman zituen eta hiru huxtu ere egin.

Berehala ideki zion Peru delako harek eta sukaldean sartu zen.

Agur eta *agur*, denborarik galdu gabe basoak ezarri dituzte mahainean, botoilak ere, eta Lar-

goren bixkotx ederrak, urre-kolore, bafada gozo bat dariotela...

Hura non bet-betean Peru xutitzen den, harritua bere kaderatik.

—Jesus! norbait badugu bortan!

Badoa zangoen punttan, eta berehala itzultzen da begitarte desegin batekin. Ahapetik erraiten die:

—Xahu gira! Nausiak! Goazen hemendik!

Leioa zabaltzen du eta Largori keinu egiten diolarik:

—Pasa zite lehenik!

Largok jauzi egiten du eta ximixta bezala ihesari emaiten...

Hortan Peruk leioa hesten du berriz ere, karkailaka irriz, eta hiruek egin omen zuten Largo-ren gostuz krakada bat ederra.

Ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren. Hortan fini da ixtorioa.

ETXEKO BORTA

Ixtorio hau bertze orduz, Biarnon gertatu omen da. Izenak eta oro emaiten dauzkutenaz geroz, zertako behar ginuke den gutieneko duda ere begiratu?

Beraz Jakulet, Asat-ondoetako laborari batek bere ama-ginarreba, Marianne gaixoa, biziki eria zuen eta ohatua. Zonbait egun hartan beti mehatzen ari zen emazteki tristea, eta indarrak ere bazoazkion. Ikaran zagon ez ote zuenetz fingaixto eginen, suhiak mirikua ekar-arazi gabe.

Bainan, adixkidek erranik, azkenean deliberratu zen gure gizona auzoko miriku baten ekar-arazterat.

Jaun dotorra tiroa bezain fite heldu da etxerat. Eriaren mihiari behako bat, foltsuak mia, beharria bizkarrari kontra eman, betespal eroria begiaren ikusteko altxa, zonbait xehetasun galda, eta horra nun bet-betan erraiten dion Jakuleti:

—Otoi, Jakulet, emadazu berehala paper xuri bat, ordonantza egin dezadan!

—Paper xuri bat? Hau ixtorioa! Zer uste duzu, Jaun mirikua! Gure etxean paper xuria atxikitzen digula? Ai, ei, ama! auzotegi huntan guzian ere ez duzu eta paper xuririk atxemanen! Laborariak gira gu hemen gaindi, eta ez notariak!

—Biban de biban! hasten zaio sakreka miriku gaizoa. Oraino goait egoiten ahal bagine! Jakizu kasu presatua dela gero, gure eri hune kasua.

—Ez zitela hora samur, jaun mirikua. Zaude! Huna zer egingen dugun. Ikusten duzu etxeko borta handi hori? Hartan izkiriaturko duzu ikaz beltzez!

Nahiala ez ditakenean egin, egiten da ahal-ara.

Beraz jakuletek erran bezala egin zuten.

Bainan nola ekar Pauerat ordonantza alimale hura? Bizpahiru kintal pisu zituzken...

Auzoak bildu ziren elgarretarat, eta asko ele-ren buruan, deliberatu zuten azkenean beharko zutela borta-kankail hura orgetan kargatu.

Ez zen lan ttipia: zer nahi gostarik, hupatu zuten, palanka, sokak eta oro baliatuz. Oren erdi bederen eman zuten, eta huna non Maturin

xaharrak, bi besoak airean, oihu egiten baitiote bere boz erlastuaz:

—Debruen semeak! zeri ari-izan gira? Ez duzue ikusten ordonantza, bisaia zeruari dagola? Sekulan uria has baladi, zer irakurriko du botikarioak?

—Egia zuk, ihardetsi zion serios-seriosa Jakuletetik...

—Beraz itzul dezagun gure borta, erran zuen Bernat maltzurak: horrela ez duke gure ordonantza balios hunek bustitzeko perilik!

Hala egin zuten.

Azkenean idiak uztarturik joan zen joan Jakuletetik gaizoa erregebidez erremedioketa bere abere maltsoen urratsean.

Pauerat-eta, lanak izan ziren borta horren itzultzeko eta botikarioak ahal zuen bezala irakurtu zuen ordonantza.

Gero jaun hunek Jakuleti bere botigako flaskorik ttipiena eman baitzion, ikustekoa zen Jakuletetik, zehe bat aho idekiz, tontoarena egiten zuela:

—Balio zuen segurki hain mustra ederreko ordonantzaren muntatzea, sendagailu ñimiño hunen ukaiteko.

Orgetan ezarri zuen dena ere, eta erreposki abiatu zen etxeari buruz, idien tankari jarraikiz. Sei orenen buruan, etxeko keretari hurbiltzearekin, auzoak jin zitzaizkon biderat begitarte triste batzuekin:

—Gaixo Jakulet! Berantegi heldu zira; Marianne gaixoa Jainkoa baitan pausatu da!

—Alo! Aldi huntan bederen ez dut galdu ene Pauerako bidaia!

—Zer mintzo zira, gizona?

—Ah! gaixoak! Ez dakit haren hiltzen ikusteak ez ninduenetz nihaur hil-hotza aurdikiko!

Harritu ziren auzoak. Ez ziren orainokoan ohartu Jakulet hainbertzetaraino atxikia zaitziola bere ama-ginarreba zenari!

Ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren. Hortan, fini da ixtorioa.

EZKILAREN ERRANA

Bertze orduz neskatxa prestu bat joan zen jaun zuhur baten gana kontseilu galdez:

—Jauna, ezkontzeko parada badut, bainan ez dakit ontsa zer egin, ala naizen ezkonduko, ala ez?

Jaunak erraiten dio:

—Ezkontz zitazke!

Neskatxak:

—Baina, Jauna, ezkontzen baniz, ikusten dut gatibotasun eta pena handienen erdian sartzera noala. Senar duenak jaun badu eta bertzen meneko izaitea ontsa izanaren biharamuna omen da.

Jaunak:

—Oh! orduan, ez ezkont!

—Bainan hola gelditzen baniz, bakar-bakarra, umezurtz bat bezala nitake, nehoren laguntza mikorik gabe, xori arlotua bezain trixte.

—Hobe duzu beraz ezkontzea...

—Ba segur; bainan lagun ona ez bazait gertatzen, zer bizi ikaragarria! Urka-bilurra izanen dut lepotik, eta Jainkoak daki zonbat urtez!

—Eta, ez ezkont!

Neskatxak:

—Ha, Jauna! Hauxe da perdunantza! Ezkontzeak bere irriskuak, ez ezkontzeak bere tristeziak, ez dakit bada zer egin!

Jaunak:

—Ori, huna ene azken kontseilua. Zoazi elizara, jo zazu ezkila, bizpahiru danga; harek erranen dautzu menturaz zer egin behar duzun.

Neskatxa joan zen elizara ahalik-eta lasterre-na.

Harat orduko tiratzen du zeinu-korda. Meza aintzineko ezkila ttipia zen:

—*Tilintin, tilintin, tilintin!*

Berehala konprenitzen du erraiten diola:

—*Balentin, Balentin, Balentin!*

Badoa beraz jaun zuhur haren gana eta erraiten dio:

—Jauna ezkila aditu dut, eta erran daut garbiki Balentinekin ezkontzeko.

Jaunak:

—Beraz ezkont zaite!

Balentinekin ezkondu zen...

Handik denbora labur baten buruan, huna emazte hori jaun zuhurraren etxean berriz ere kontseilu beharrez:

—Jauna, kontseilu gaixtoa eman dautazu, ezkontz nadin; senarra usu horditzen zait eta lihoa bezala jotzen nu!

Jaunak:

—Ez dautzut nik erran ezkontzeko; zuhaurek zinon ezkilak erran zautzula baietz: nik ezkilaren ganat igorri zintudan; menturaz ezkila gaizki konprenitu zinueen!

Emaztea badoa berriz ere elizara. Ezkila lehen bezala jo gogo du, ikusteko nola konprenituko duen oraikoan.

Zeinu-korda tiratzen du:

—*Tilintin, tilintin, tilintin!*

Eta huna nun konprenitzen duen berehala:

—*Mutxurdin, mutxurdin, mutxurdin!*

Itzultzen da lasterka jaun zuhurraren ganat, nigarra begian!

—Ah! Jauna, biziki gaizki aditu nuen lehen aldian; ezkilak erraiten zuen: «mutxurdin,

mutxurdin, mutxurdin!»). Ez nintzen ezkondu behar!

Jaunak azken hitza erran zion:

—Haur gaixoa, orai ez duzu ordu; eta zure gaitzak ez du erremediorik pazientzia baizik. Har-azu pazientzia! Eta hemendik goiti gauzak beti gogo-alde konprenitu orde, har-aitzu diren bezala. Ezkilek eta kontseilariek ez dautzute sekulan erranen ez *Balentin*, ez *Mutxurdin*, baina *tilintin!*

KONKORRA

Gure jaun mera bi plegu egina, arrunt konkortua dugu, (erran zion Kattalinek andere-serorari). Bai, etxetik ateratzen ikusi dut egun goizean makil bati bermatuz...

—Jesus! Hau da berria! Atzo akulua bezain xut pasatu baita karrikan, zer gertatu zaio bada?

—Airea sartu menturaz! Sasoin nahasi hauiekin zer nahi biltzen da!

—Zuk errazu!

Pentsa, berriak ez zuenetz kurritu herri guzian.

Jaun mera bera harritu zagon, arrazoinekin: bezperan biziki ontsa afaldurik, loa ere ona izan zuen; gogoia arin, alegerarik jeiki zen, nehun deusik senditu gabe, ez errainetan, ez junturetan; eta horra nun bet-betan, beztitzean, krak! konkortua gelditzen den!

Xutitzerat behin entsea, berriz entsea... eta ezin!

Nor harritu, hura harritu...

Bitxikeria, ez zagon orainokoan ere nehundik minez: bakarrik ezin erranezko ez-ontsa batek hartua zaukan, sahets-hezurak guti edo aski hertsatzen ziozkala!

Pentsa nola gogoetatua zitakeen!

Ez zela hola egoiten ahal, hobe zuela zer gerta ere mirikuaren ganat joaitea, joan zen bada herrestan jaun auzapez dohakabea, bazter guziak harrituak zauzkala!

* * *

Agur eta agur!

—Horra jaun mirikua, arras kaliherratua naiz, egun goizetik hunat; nehundik ez dut bizkarra xuxen atxikitzen ahal!

—Ah! ea mihia? Mihia biziki garbia duzu. Badakizu, zombait aldiz estomakak ere egiten du. Odola loditzen delarik, gerruntzeak gaixtatzen dira, eta hortik gerta ditake, minez eta dolorez konkortzea...

—Konprenitzen dut ba, jaun mirikua: bainan aitortu behar dautzut ez dutala ez minik ez dolo-
rerik...

—Alo! zertaz pleini zira bada?

—Halako hezur-debeku bat badutalakotz, poxolu bat bezala, parasol gider baten pare ahoz beheiti bainauka!

—Ea, jaun mera, erradazu egia: ez zira nun-bait erori? Behaztopaturik, edo lerraturik, edo nik dakita?

—Ez, jauna, ez!

—Lehenago ere ez?

—Ttipian ba, behin baino gehiagotan: bizikletan ikasten nuelarik, badut itzulipurdi ederrik eginik!

—Bizkar-hezurretan ez duzu orduan deusik senditu?

—Ez naiz batere oroit?

—Alo! Alo! Hori aipatzen nautzun, zeren eta gerta baititake lehenagoko zauri batek bere gerokoa izaitea! Ene aita zenak beti erraiten zion Etxebesteko Piarresi, pippetzeak hilen zuela; Piarresen ezetz: eta badakizu zer gertatu den? Joan den astean hil zait eskuen artean lauetan hogoi eta hemezortzi urtetan. Horri gazte danikako eritasun baten ondorioa!

—Ba, jauna, konprenitzen dut; bainan ez dut nik behin ere pipatu!

—Hobe duzu! Bainan zaude... gure liburuek erakusten daukute ttipitik baino urrunago danik heldu direla askotan gure ezinbertzeak.

—Bekatu orisinaletik?

—Ba, ba, segurki; bainan hain arrun ibili gabe, ez ote duzu izan zure familian konkorrik edo erromatismadunik?

—Zaude... Aitaren aldetik, ez dut uste: pilotari famatua izan da bere denboran... Alta ama ere, zaharrek ziotenaz, kurritzale lehena...

—Aitaso? Amaso?

—Ez dut egundaino aditu ni orai bezala izan direla. Urteko ilobaño bat badut haatik, *paralysie infantile* delakoarekin. Ez ahal daut harek kutsua eman?

—Ez dut uste, jaun mera! Orizu, asmuka eta amen-omenka artzeko orde, hobe dugu naski min horren ikustea eta haztatzea... Beharbada berak erranen dauku nundik heldu den eta nola senda ditakeen. Ea, erauz-azu paltoa lehenik. Ez dautzut minik egiten?

—Ez, ez, batere!

—Debrien bisaia! Hau pollita dugu?

—Zer duzu bada, jaun mirikua?

—Hi, hi, hi! ha, ha!... galtz-aintzineko botoina barneko-motxeko botoin-xiloan emana duzu eta! Damurik, hola konkortua baitzira!...

* * *

Botoina bere xiloan ezarri zuten, eta jaun mera sendoturik ateratu zen mirikuaren etxetik.

Jende guzia miretsia zagon, eta jaun merak erraiten zioten orori: «Gaitzeko gizon habila dugu herriko mirikua; mina berehala kausitu daut eta berehala sendatu!».

Ordutik konfientzia handia izan zuten denek miriku horren baitan.

EGIA ETA GEZURRA

Askotan bezala, bazen behin emazte bat, gazterik ezkondu zena, handik laster alargundu, eta berriz ere ezkondu: tutak egin ziozkatenez, ixtoriak ez du aipu.

Dena dela, Joanes bere senar berria lanean zuen batez, gizon bat jin zitzaion etxe-bazterrerat. Galdegin zion nundik heldu zen, eta iharde-tsi zion: «Bertze mundutik!».

—Ah! orduan ba ahal dakizu gure Piarres zena zer bilakatu den?

Harek baietz: Piarres biziki ontsa zela osagarritz, bainan horra... zapata eta arropa miseria gorrian zela, eta bertzalde pipa baten gizentzeko tabakorik ere ezin eros, denbora pasa...

Arrunt penatua zen gaixo emaztekoa, eta berehala erran zion arrotzari:

—Nahi ziniozkeia ene partez ekarri zombait sos eta arropa?

—Baietz segurki! Eta horra nun lauetakoa egiten dion puskak bil-artean: xingar eta arroltze, ardi-gasna gorritu arno on, kafe eta ondoko.

Gizona, ahamenik galdu gabe, ez zen atertzen xehetasun emaitetik: hain segur zeruko berriak oro bazakizkeen tiletez-tilet.

Azkenean partitzeko tenorea jin baitzen, emazteak eman ziozkan, ontsa antolaturik bi alportxetan, ereman beharrak oro.

Eta gizona joan zen alegerarik, alportxak lepotik eta sosak sakelan. Keretatik azken agur bat, ahal zitakeen graziosena, eta hortan itzali zen...

* * *

Senarra lanetik itzuli zenean, andreak errantzion:

—Joanes, ez dakizu? Piarres zenaren berriak badira. Norbait izan zait oixtion haren berriekin!

—Gaixo inuxenta, zu! Nork trufatu zaitu berriz ere?

—Ez dakit! Ez zuen bada gezurtia iduri!

—Eta zer eman diozu?

—Alportxa pare bat puska!

—Alportxak? Preseski bidean kurutzatu dut alportxadun bat... Ikusiko dugu ea bizkar-hezu-

rra ene makila bezain azkarra duen! Madarika-
tua!

Zaldia hartzen du, eta joan ahala joan badoa
jin bidetik, makila ukaretik dilindan.

Emaztea kadira apal batean jarri zen, niga-
rrez eta ahalgez urtua! Bai orai aitor zuen ahule-
gi izan zela sobera fite onartu zituela ohoinaren
erranak! Egia erran, ez zena hain polliki mintza-
tu ohoina? Nori fida engoitik? Oraino, beharrik ez
baitzozkan alportxak baizik aipatu senarrari. Zer
behar zuen erran, sosa eta lauetakoa aipatu
baliozka?

* * *

Anartean, zaldia haizearen pare badoa, eta
han urrun gizona bide-bazterrean jarria da,
alportxak ondo-ondoan.

Zaldiaren arrabotsa entzutearekin, alportxak
brau!

Aurdikitzen ditu sasirat, eta hor berean geldi-
tzen du bideari beha, eskuak belaunari.

Zalduna heldu zaio eta galdegiten dio:

—Barkatu, jauna! Ikusi duzuia gizon bat hemendik pasatzen, alportxak lepotik?

—Ba, jauna, ba: hortxeko oihan hortan orai-orai sartua da, iduri norbaiten ihesi...

—Nahi dautazu, fagorez, zaldi hau atxiki ixtant bat, nik frikun hori atxeman artean.

—Gogotik.

Eta horra Joanes oihan-pean sartua, berroz-berro, otarrez-otar, ohoinaren ondotik joaki, makila airean, errabia bihotzean, sudurra xixtuz, emaztearen kontra zer nahi erranka... zaldia, hantxet, aintzineko on baten gomendio utzirik.

Bainan aintzineko on horrek ez du denborarik galtzen: alportxak biltzen ditu, zaldiaren gainerrat jauzi egiten du, eta *frixt*, horra nun joan den ximixta bezala deus oroitzapenik utzi gabe!

* * *

Bila eta bila ari-izanik, Joanes ateratzen da azkenean oihanetik.

—Jesus! Nun dut ene zaldia?

Ez zen gehiago ez zaldirik, ez gizonik, ez alportxarik.

Joanesen hasarrea!

Itzuli zen etxerat, eta gusturik handiengan erran zion emazteari, alegia deus-ez:

—Orizu, ez baita egia bezalakorik, bertze mundutik heldu zen, gero, zure delako gizon hura! Elgarrekin mintzatu gira, gizonez-gizon, eta ene zaldia eman diot, zure alportxak ahal bezain fite ekar dietzon Piarres gaixo zenari!

Eta emazteak ihardetsi zion:

—Hobe segurki! oixtion aipatu ez dauzkitzutan sosño zonbait ere hola fiteago izanen ditu!

—Zer! dirua ere eman baitiozu?

—Bai, tabako-saria: berrehun bat libera doi-doia!

—Doi-doia! Aise ari zira zu! Brien ariña, karko!

—Ez zitela hola kexa, gizona: zaldia igortzeraz geroz, ez ginuen pegesa batekin igortzen ahal!

—Bon! Bon! Bainan jakizu hemendik goiti ez dutala berriz ikusi nahi etxe huntan bertze munduko nehor! behin onegi izatea, paso; bigarren aldian astoak gintazke.

Andre gaixoak ez zuen deusik konprenitu;
bainan ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren.
Hortan fini da ixtorioa!

DENDARIAK

Gaztain-ondo zabal baten itzalpe goxoan, dendari gazte moltxo bat baziren, dar-dar-dar, langile bezain kalakariak segurik.

Arratsaldea hauta zuten: iguzkia kuku-miku-ka ari hedoi en artetik; haize hotxkara eztiño bat itsas-aldetik heldu, eskuen eta mihien akulatzaile.

Bazen ele. Bazen irri.

Errege-bidetik iragaile guziak nola ez zituzten jorratzen? Hau sakatrapua bezala jauntzia zela; harek antzara maingua en urratsa zuela; bertze horrek gazteriarekin sekulako auzia izanki, galarratsen ondotik; holakoak holako nahaskeria egin, eta hau eta hura...

Orratsetik hari, aixtur-ukaldi zonbait ere emanik protsimo-lagunari, huntarat erori zitzaio ten solasa: ea guziek beharko zuten bada goiz edo berant ezkondu...

—Badea nehor hemen, mutzurdin egon nahi lukeenik? zuen galdegin irri maltzur batekin Intxauspeko alaba gehienak.

—Mutzurdin?

Karkailaz hasi zitzaizkon lagunak.

—Ai, ei, ai! Mutzurdin? Ez nik segurik. Ez nun ikusiko ez ni, xapel urdin ttipitto bat buruan, dena otoitz eta arrosario, arrunt xoxotua, Me Marie bezalakatua! Gaixo sintsa! Barda ere gatuekin ari zen katitximan.

Horrela mintzatu zena zen Oihanburuko Matilda. Katalinek aldiz erran zion:

—Ez, ez, Jana-Mari, ezkondu nahi gitun, ezkondu. Hik Beñado bezala, mutiko gisako bat atzemaiten badinat nik ere, zer ezteiak! Oraitik gomit zirezte oro!

—Milesker, ihardetsi zion etxekandereak. Bainan oro ezkont-nahiak zireztenaz geroz, nun kausi senargeiak?

—Diren tokian, gaixoa!

—Egia hori! Bainan, haurkeriak utzirik, erradazue zonbat neskatoako zirezten herrian? Hasteko, kongregazionean zonbat?

—Andra-dena Mariaz, hogoi-ta-hamabortz mantalin xuri baziren. Zonbait beharbada ereriko: zer nahuzu? Apezekilako betiko tehenta... Dantza ez haizu, eta pestetan nahi ala ez...

—Xo! ez dun gure egitekoa hori. Beraz hogoi-ta-hamabortz orotarar. Kongregazionekoez bertzalde baditun zonbait oraino: Burguko bi ahizpak. Etxegoineko Graxi, gero Madalen, gero Mariaño...

—Dolores.

—Eta François Dumay!

—Alta Melani, jandarmek ez ahantzia, ez dugu guk ere ahantzi behar.

—Paulina ere hor dun bai!

—Hots! berrogoi-ta-lau segurik bazirezte, neskatoakoak. Eta zonbat uste dun mutiko bade-la, Kattalin? Igandean atera dinat kondua: jauregiko mutilak barne, hogoi-ta-bereratzi ditun guziak!

—Zer! hamabortzek beharko dutela beraz ezkondu gabe egon?

—Ez dakit bada! Auzo herrietan mentura zer-bait balitz oraino! Bainan ez. Orotan gizon eskasia, eta gu, emaztekiak, sobera bezala, orotan!

—Ho!

Gaitzituarena egin zuten guziek, etxekandereak hitz horiek erraitearekin. Alegia irriz ere hasi ziren.

Bainan parra eta josteta horien gatik, lano bat jautsi zitzaioten begietarat nola bihotzetarat. Bet-betan ez ote zitzaizkoten histu zonbaiti, geroko egin zituzten amets ederrak? Ametsetarik musu emaiterat zoazkoten haur pollitak histu eta itzali, hoik ere.

Ixilik zauden. Gogoeta zauden guziak, erdi etsiturik. Matilda ere buruari hazka, Mlle Marie-ren xapelurdina ileetan senti balu bezala. Nehork haatik deus ez aitortzen.

Anartean aintzina ari ziren jos eta jos eta jos. Memento batez ez zen mekanikaren arrabotsaz bertzerik adituko. Eta horra nin hixtu legun

hurrisko bat altxatzen den, bihotz guziak hartzen
eta betetzen bezala dituelarik, xaramelan.

—Mayi, zer dun aire hori?

—Umexurtxaren kantua.

—Ea hitzak kantazkin!

Boz ezti batez Mayi hasi zen berehala:

*Goizik egin daut zori-gaixtoak
bihotzean zarrapoa,
Zazpi urtetan betikotz joan zait
nigarrik gabeko loa.
Beti eskas dut oherakoan
amaren musu beroa.
O zoin beltza den ama iresten
daukun hil-herri ziloa!*

*Zonbait egunen buruan aitak
umexurtx ninduen utzi:
Eritasunak uste gabeen
hobirat zuen iraitzi.
Geroztik, Jainko Jaunari esker,
Komentu huntan naiz bizi
Serorek beren alaba gisa
nute orai arte hazi.*

*Ama samur bat izan zait beti
hemen edozoin serora,
Nahiz ez naizen zorigaitzeko
umexurtz gaixo bakarra.
Ni bezalako berrogoi nexka
elgarrekilan bagira,
Gure berrogoi amak zerutik
ama-serorei begira!*

*Ondikotz, ama berri hauk ere
bertzen ganat zaizku joaiten.
Eta nehor heien ordaintzerat
etxe huntarat ez jiten.
Ondar neguan zortzi hilentzat
Bi gazte baizik ez aurten.
Umexurtxak, bai, berriz umexurtx!
Asma zer pena ez duten!*

Kantu horrek dituen hameka koblak eman artean, asko matel-hezur gorritu ziren eta asko begi argitu.

Bihotzetan zer gertatu zen? Nik ez dakit. Beti Matildak ez dun egungo egunean Mlle Marie-ren

xapel urdinaren beldurrik. Angelun serora sartu omen da udaberrian.

Aditzea badut kattalin ere holako zerbait egitekotan dela.

Alo! Jainko maiteak eman dezotela heieri eta holakoeri bertzen haurren ama bilakatzeko bihotz zabal amultsua!

MATALAS (1661)

Ordukotz larrazkena hozten hasia, hilen ila-bete hitsa abiatua hura ere, Mauleko presondegiaren ateari zagon Herio beltza, sega bizkarreran, norbaiti aiher... Nehork ez zuen ikusten, bainan auzoko zakurraren pleinua entzun lukeenak aise sumatuko zuen, hain zen dolumenez betea...

Ate hortan, erne-erneak, baziren Bordaletik jinak, hiru soldado frantses, erregeren zaldunetarik, zonbait egun hortan preso zaukaten eskualdun baten zain.

Alta, iduri guzien arabera, eskualdun gaizoak ez zukeen ihes joaiterik: harri-has etzana zen presondegian, eskuzangoak tinki-tinkia burdin gatez estekatuak. Bainan Ziberotarrak jazarri baitziren Frantziako gobernuaren kontra, ez nahiz behar gabeko zergatik, heien buruzagieta-rik omen zen presoner hura, eta frantsesak beldur ziren lagunak etor zakizkon indarka libratzerat. Hortako zuten bada hain artoski eta hertsiki begiratzen.

Hainbertzenarekin heldu zaiote Mus de Calvo aintzindari nausiaren manu hau: «Burdinetan daukazuen gizona eremazue hamar orenetan auzitegirat. Kasu ez dadin bidenabar nahasmen-durik gerta. Maulen egina hazilaren bortzean. Calvo».

Bederatzi et erdiak ziren.

Berehala zabaltzen dute zerrakua.

—Asa, xuti hadi.

Ahal bezala xutitzen zaiote gizon mehar bat.

Hunen itxura hitsa! Galtzak doi-doia soinean.

Bertze fitsik ez... ez eta etorrarik ere!

—Ea, atera hadi!

—Nola nahuzue bada jal nadin?

Egia! zangoak estekaturik ez zitaken higi.

Barreatzen diozkate bada oinetako lokarriak.

—Alo; goazen!

—Jaunak, hunat bildu nutenean, ez nintzen hola buluzia. Ene arropak nahi nituzke. Soineko-ek erakutsiko dute nor eta zer nizen... Ala ahal-ge zirezte zuen lanaz?

—Hago ixilik, arnegatua ez bertzea: aipu dukan arropa ez hukeen behin ere ekarri behar.

Eta haren erraneri batera kasurik eman gabe, hamar zaintzalek inguraturik, bidez-bide badaramaten etxe handi batetarat.

Barne nasai baten, mahain luze bat. Mahainaren haraindian jaun elementia, oro Luis XIV-garrenari atxikiak, erregetiar suharrak, Xubero-tar jazarrien etsai errabiatuak.

Halere burua gora badatorkiote eskualdun presonera. Begitartea, hala da, askitto akitua du: zombait ilabetez lo guti egina, alabainan; usu gose egona, eta zer nahi ikusia: lan, gudu eta neke. Bizkitartean zerbaitek emaiten dio argidura berezi bat. Handi emaiten du, bere larruha-sean; eta arimaren garrak hedatzen bezala dio gizonaz goragoko baten aldartea.

Nornahi urrikalduko zen hain jende gisakoa estatu hortan ikusiz. Etsaiak ez. Hor dira, itsutuak, herra bihotzean, irri gaixto bat ezpainetan, odol ixuri nahiak.

Erregeren salataria edo inperkadorea xutitzen zaiote, eta bipilki hasten, gora-gora:

—«Jaunak, huna gure aintzinean hobendun handi bat Goienetxeko Beñat du izena, izengoi-

tia Matalas, eta (nahiz erraiteak halako bat egi-
ten dautan) apeza da, Mitikileko erretora.

»Atzo eta heren-egun joan nitzaio xeheyasun
galdez. Dohakabeak ez du deus ere ukatzen
haren gain emanak diren gaixtakerietarik. Aitor
du lañoki erregeren kontra jazari dela eta bazte-
rrak bere alde harrotu dituela gerla luze bati
buruz.

»Ba, jaunak, ekainetik hunat nausi jarria
dugu eskualde huntan: ororen nausale eta
nahasle.

»Sohütan, Bordaleko Biltzarrari nolako laidoa
ez dio egin? Biltzar horrek manu bat igorri bai-
tzuen, jazarleak prso altxatu behar zirela lehen-
bai-lehen, manu hori herriko plazan irri-karkaila-
ka erre du.

Montorin zorrozkiago jokatu da, higenauten
eliza errez, heien haurrak tortxoak eskuan meza-
lat hertsatuz.

»Mauleko hiri eder hau ere sutan eman nahia
zuen, erregeren alde beroegi kausiturik. Beha-
rrik Jaun apezpiku Maiti suharrak bere hitzñoa
erran baitzion!

»Oroit bide zirezte hiri huni eta Olorongo jaun apezpikuari kendu diruaz; eta ez duzue ahantzia nola nahi izan zaukun hemengo merkatua Bildozerat ereman...

»Ai Goienetxe, erregez baduzu erraiteko hainitz: idor eta bihotzgabea daukazu, bere eginbidea betetzen duelakotz. Zu, zer zira bada?«.

Apeza dohakabearen begia orduan, eta ihar-despenaren laburra:

—Nik ez diot ohointzari «eginbidea» erraiten. Gu zuzenaren alde ari gira, bortizki ari izanik ere. Etsaiaren gudukatzea eta haren adixkideen gaztigatzea ez da egundaino gaizki izan. Emazu aintzina. Gero mintzatuko nuzu!

Harritu ziren aditzale guziak apez «herresta» horren bekokiaz, eta bihotz-mamiraino sartu zitzaioten «eginbidea» erraitearekilako irri-erka-txa.

Berriz hasi zen bada erregeren salataria:

—«Jaunak, horra gizonaren gogo! Bainan irriak sartuko zaizko ixtantean: ixuri duen odolaren gatik, erre dituen etxe eta mozkinen gatik, herri guzian erain duen desohorearen gatik garazki behar duzue gaztigatu.

»Errana dautzuet hastean: apeza dugu hobenduna. Nehork ez bide du nik bezanbat apezgoa onesten. Bainan apezen alderat dutan jauspen hunek berak garrazten, gogortzen eta burdintzen daut besoa! Apezak badu argi: hobendunago da beraz makur dabilanean. Apezak behar du bide ona erakutsi; gaizkirat doanean, uko egiten dio bere arropari eta uko bere arimari.

»Arropa kendu diogu. Ez da aski. Nahasleen buruzagia, Beñat Goienetxe, jo zazue barkamen-durik gabe eta igor zazue lehen-bai-lehen hiltzerat».

Hitz hoik aditzearekin, Matalasek zimeltzerat egin zuen lehenik. Bainan laster nausitu zen zaineri eta soa piztu zitzaion sekulan ez bezala.

Eta huna non Calvok gomitatzen duen mintzatzerat:

—Balinbaduzu zerbait erraiteko, orai duzu ordua. Sarri berantegi lizateke!

Giza-gaizoak ez zioten hitz-aldi luzea egin:

—«Jaunak, garraitu nuzue; eta ene solas edere-
renek ez nute zuen aztaparretarik salbatuko. Eneak egin du. Jainkoaren aintzinerat agertu

beharra niz egungo iguzkia sartu gabe. Ez niz hiltzerakoan gezur erraiten hasiko.

»Bai hala da: jazarri nitzazio Luis erregeari. Erranen dautzuet, hasteko, Frantziak Eskualduneri eman daukun uztarria ez dutala behin ere hanbat onartu. Auzoen lurretan nausi paratzea ez zait eder. Harma eskuan bertzen ontasunez jabetzea nik segurik ohointza deitzen dut. Bada-
kit, jaunak, aspaldiko ohointza dela; bi mende huntan ohoinaren meneko dira Xuberotarrak, eta gehienak ez dira oroitzen ere gertatu zaioten bidegabeaz. Etsaiak emeki-emeki bildu ditu eta lokar-arazi; ni bezalako zahar batzuek kanpo nehork ez ditu aipatzen ere, Eskual-herria bere legekin bizi zen mende ederrak. Bai, Eskualdunak jarri dira arrotzen legeri, eta Frantziako erregeak ez balu halako diru gose izigarria erakutsi, uste dut eskualde huntan ez zela ikusi denik ikusiko. Bainan soberakina sobera da.

»Luis erregeak bazituen Iruritan jauregi bat eta lur eremu pollit bat. Nola ukanak? Ez niz hortan sartzen. Esku tzarretan emanik galdu dituela eta orai, berriz kobratzeko, 150000 libera behar dituela, zertako behar diozkagu, guk, Xiberota-

rrek, diru horiek oro eman? Frantziaren jabeak zertako nahi luke eskualde ttipi hau bipildu? Zer gira bada harentzat ala nunbaiko jende gaixo batzu, larrutzen ahal dituen arrotz trixte batzu? Arrotz balinbagira, Frantziako erregearentzat, ez gira batere frantsesak, eta gure gain jartzea hobe dugu! Horra zer pentsatu duten Xuberotar hainitzek; buruzagi hautatu nute; eta elgarrekin jazarri gira:gure lurra gure!

»Jaunak, nik gudua bururatua dut, hemen nizenaz geroz. Bainan eskerrak zor diozkatet ene laguneri. Lehoinaren pare ari izan dira. Zuen soldadoak guduan irakasiak ziren; eneak batere ez. Zuenak gehiago ziren; eneak gehiago baziren. Gogoan bazuten, eta badute sort-herriaren salbatzeko xede handi bezain saindua. Xede horrek eman diozkate indarrak. Undurañeko eiheran setiatu baininduzuen, heiek libratu; eta gutik egin du Gotañeko jauregitik ere ez bainute atera. Jarraik bitez bideari, heriotzaren beldurrik gabe. Hobe dute hiltzea ni bezala, etsaien peko izaitea baino.

»Egia erran, ez dakit azken oreneko lanbroek iluntzen dautaten gogoia; bainan etorkizuna bizi-

ki itsusia agertzen zait... Beharbada auzo-erresumek menduko dute bortxaz gure Eskual-herri xume maitea. Bainan kasu, miru tzarrak! Zuek xitoak bezala, arranoek sarraskituko zituztete! Populu basa batzuek jauzi egingen dautzue gainerat, zuek guri bezala. Nork bere aldi, horra munduko legea. Jainkoaz otoi, Eskual herriari utz-ozue edo emozue bakea, ez baduzue erain nahi zuen ondokoentzat gerlaren hazi pozoindatua.

»Gauden hortan! Eta orai goazen hiltzerat. Girixtiño gisa barkatzen dautzuet ene heriotzea, bainan ez dautzuet barkamendurik galdatzen. Gaikizaren kontra jazarri niz. Berriz haste balitz, bardin jazar nindaiteke. Gora Xubero! GHOrak Eskual-herria!».

Goienetxe apeza ixildu zen. Hastean erran baitzuen solas ederrenek ez zutela salbatuko, hola-hola gertatu zitzaion. Hiltzerat kondenatu zuten: 1661-eko hazilaren 8-an moztu zioten burua eta alderdiak zehakatu...

Auhen handi bat hedatu zen Ziberotik Eskual-herri guzietarat. Auhen hori ez zen bakarrik

bihotzminaren oihua. Bazaukan eskualdun egoi-
teko xede zin bat, nahikari abre bat...

Gure herri bazterretako oiharzunek jadanik
eta betikotz galdua ote daukute auhen hori?
Otoi, otoi, pizt dakigula orotan Matalas handia-
ren oroitzapena!

Harek Eskual-Herria sobera maite zuela
bazaitzue, guk ez dugula aski maitatzen, ez zai-
tzueia iduri?

ANDERE-ESPOSA GABEKO EZTEIAK

Maiana-dendaria bazoan haia-haia Errekanbordarat, goizeko bederatziak irian, eta iguzkiak bazuen jadanik indar. Landa bazter batetarik emazte batek oihu egiten dio: «Errazu, Maiana? Errekanbordako ezteietarat bazoazi bederen? Zauri gure etxerat, bero da, esne xorta bat edanen duzu, hotz-hotza! —Milesker, Kattalin, zure ikustateaz. Presatua niz. —Aitzina dugu, aitzina, gaixo Maiana! —Beranta ba, izaitekotz! Ez daki-zu Mayi lagundu behar dutala beztitzen. —Beztitzen? gaixoak badu bertze lanik egungo egunean! —Zer erran nahi duzu? Harritzen nuzu! Zer zaiote ala ideia sanjatu? —Ja, ja! —Mayi eritu, aments? —Preseski! —Jesus! Zer izan du ba? —Lau liberako haurño bat, hots, egun goizean...

Aise asma ditazke bi emaztekiek erabil zituzketen solasak oraiko gazteen manera trixtez. Bainan Maiana, bidean izanez geroz, joan zen

halere aintzina Errekan-bordarat, gauzen hobeki jakiteko.

Harat-eta hala zela ikusi zuen Supazterrean huna etxekandere xaharra, haurño bat oraino biribilkatua urrumakatzen ari duela.

Mahungak ukondoraino bildurik, motoa airean, Gaxuxa koziniersak badu haro. Gau guzia emagintzan emanik, xehe-xehea nahi ditu denak kondatu: «Hemen berean nintzen, oilas-koak lumatu eta husturik: apailatu nahi nituen, noiz-etaere bet-betan pleinu batzu aditzen baititut ganbara hortarik! Jes-eta... zer zitaken, banoa lasterka, denak utzirik. Gaixo Mayi! Haurra izaiteko kinkan! Halere hemen bainintzen...».

Gaxuxa eihera bezala ari delarik atertu gabe, horra hor kadirra batean bi plegu egina, lurrari so, gorri-gorria. Gabriel jaun-esposa, haurraren aita, aparantziaz...

Mayi ez da ageri. Ohean da ganbara handian, lo-zorro pisu batek hartua. Bederen ez ditu aditzen, aita xaharrak bultaka derabiltzan erasiak. Ez da haratik, ez hunatik gaixtoan da, gaixtoan, Errekanbordako nausia; oro ele dorpe, oro mehatxu, bai alabaren kontra, bai suhi-beharra-

ren kontra: *urde* eta *urdesaka* ari da, bertzeak bertze, hitz eztienak baizik ez baititugu hemen aipatu nahi.

Gabriel gaizoak hitzik ez. Dendaria hurbiltzen zaio eta ahapeka erraiten dio: «Ken-azu bada zure buketa!» Jaun espos dohakabeak halako dolu batekin kentzen du bere lore-floka eta sake-lan sartzen, hats-beherapen bat ateratzen zaio-larik: «Hau lastima! —Ez zinen zerbaitez jelostua? —Alabainan ba...». Ixtant baten buruan, karrosa bat kanpoan aditzearekin mogitu gabe, giza-gaizoak erraiten du: «To, ezteiliarrak!». Erran bazuen, erra: aita oihuka hasten zaio: «Ezteiliarrak? Eta nun ditzuzu ezteiak, mutiko zozoa? Ala den estatuan elizarat ereman nahi duzu?». Eta eskua Mayiren ganbarari buruz keinatua zuen, ikara batean...

Gabriel ixilik zagon bere onetan.

Anartean ezteiliarrak heldu ziren. Auzoek erranik, orok bazakiten berri; eta ez jakinez zer begitarte egin, ez jakinez zer erran, ixil-ixila sartzen ziren hil baten ondoan kurutzearen adora-tzeko bezala. Eta zer pena bertzalde! Pesta egi-tera jinak, eta pesta biper egina. Zer afruntua....

Jendea jin arau, aita xaharraren oihuak handiago, alaba eta suhia ezin aski desohoratuz. Ez zen goxo nehorentzat. Azkenean Gaxuxak erranzion deplauki: «Ea, Batixta, ez zazula hoinbertze erran. Alaba Pazkoz hitz-eman delarik, Omiasaindura gabe ezkondu behar da... Bainan joanak joan, zer probetxu duzu samurturik ere! Orizu, denak hemen girenaz geroz, eta bazkaria ere agintxea, ez ahal duzu jendea ahoan kurutxe etxerat igorriko? Hasian-hasi, zertako ez egin bataioko bazkaria? —Aitatxi eta amatxirik gabe? —Eta hauk?». Zaliaz erakusten ziozkan kontra-esposak ederki apainduak.

Gaxuxak sendi zuen ezteiliarrak haren alde zirela oro, eta nausi xaharra amor emaitera zagola. Atrebitu zen erraitera: «Bai, zoazte denak haurraren laguntzerat dela Meriarat, dela elizarat. Nik mahainak anartean beztituko ditut. Xo! Sankristauak berantetsiak zituzte!».

Hainbertzenarekin elizako ezkilak errepikan hasi ziren, zeru guzia inarrosten zutela. Armariotik Mayiren bela xuria hatu zuten haurñoarentzat, eta aintzina...

Elizarakoan bazela so-egile!

Eliza-aterat eta, hau kinka gaixtoa! Apeza nork abisatuko du? «Hik erran behar diok Gabriel!». Pusaka-pusaka aldareraino badaramaten. Hor, jaun erretora esposen beha dago, barurik, mahain saindu ondoan. Tortxoak piztuak dira, esposen kadirak polliki apainduak...

Jaun erretora bi begiak harmaturik so eta so dago: ezteiliar guziak birazka, jaun esposa salbu eta emazte bat haurño bat besotan... Balditua, galdegiten du: «Eta, eta, nun da andere-esposa?». Orduan Gabrielelek haurra erakutsiz: «Horra, jaun erretora, bataia zaguzu nexka hau: “Goiz-etorri” emanen diozu izena!».

Ez dut erraitearen beharrik jaun erretora poxi bat harritu zela. Bataioak lekora, bazkari ederra egiten zuten, eta, Mayi ahantzirik, dantza eta kantu anjelus arte. Gaixo Mayi, aise pasatuko zen hoinbertze harramantzarik gabe. Ondoko egunetan ixil-ixila egin zen ezkontza, eta ontsa bizi izan baziren, ontsa hil ziren.